



SAGASTIBERRI

Urruzunotarrak
gehituz

2019

irakaskuntza ertainetako

Urruzunotarrak gehituz

literatura-ekimena 2019

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2019ko uztaila

Ale-kopurua: 1.650

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Prestatzaileak Iñaki Iturain eta Maitane Izagirre

Azala: Txapo Creativos S.L.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta
inprimategia: Gráficas Irudi

ISBN: 978-84-457-3466-7

Lege-gordailua: VI 270-2019

AURKIBIDEA

Sarrera		7
Hitzaurrea. Elkarrekin	<i>Peru Iparragirre</i>	11
Poesia: A maila		17
Zuei, zuri, guri...eta agian guri ..	<i>Aroa Arrizubieta Barredo</i>	19
Irantzu	<i>Maddi Aiestaran Iparragirre</i> ..	25
Miraz	<i>Maddi Aiestaran Iparragirre</i> ..	29
Hutsuneak	<i>Amaia Irastorza Otamendi</i>	35
Ezjakin baten pentsamenduak ...	<i>Nora Gondat Unzalu</i>	41
Prosa: A maila		47
Gora motxilak	<i>Iraide Aurrekoetxea Intxausti</i> ..	49
Han ez omen baita malkorik	<i>Olaia Azurmendi Marcos</i>	59
Mare Mortum	<i>Miren Agirregomezkorta Iza</i> ...	71
Itsasbehera	<i>Ainara Iraragorri Herrera</i>	83
Ez nintzen horrelakoak egiten zituen horietakoa	<i>Helena Gorroño Marsal</i>	89
Ez	<i>Ane Varela Etxeberria</i>	97
Aulki hutsak	<i>Miren Echebarria Martinez</i> ...	105

Prosa: B maila		111
Malko bat itsaso zabalean	<i>Iratxe Garmendia Eguzkitza</i> ...	113
Loreak udazkenean	<i>Maddi Zabalo Mateos</i>	127
XX. mendeak zure ausardia gainditzen duenean	<i>Sofia Zacharova</i>	137
Zoriaren show-a	<i>Aratz Fdz. De Pinedo Irastorza</i>	143
Zein urrun dagoen Europa	<i>Beñat Albizbeaskoetxea Sánchez</i> .	153
Txomin	<i>Jone Urbietta Lejardi</i>	165
Lokarriak	<i>Naia Badiola Solabarrieta</i>	173
Urruzunotarrak 1986-2018.		185

SARRERA

Hogeita hamahiru urte dira Urruzuno literatur lehiaketaren lehenengo ediziotik. Azken urteotako “Urruzunotarrak gehituz” izeneko ekimena 1986an abiatu zen lehiaketaren ondorengoa da; eta aurtengo edizioan berezko zuzkidura izan du sailaren aurrekontuan.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literaturako izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila eta eraginkorra dago gaztetxo idazlearen atzean. Berezko iaotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu zure barnean daramazuna ikusten. Agian, oraingoan ez duzu asmatu zure hori kanporatzen. Beharbada, trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Aipa ditzagun aurtengo datuak. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lan-kidetza izan dugu aurtengo epaimahaian:

Gari Berasaluze
Leire Bilbao
Peru Iparragirre
Goiatz Labandibar
Jasone Osoro

Parte-hartzeari dagokionez, 2018. urte honetan 120 lan jaso dira: A mailan, 41 prosan eta 20 poesian; B mailan, berriz, 57 hitz lauz eta 2 olerkian. Parte-hartzaileetako 94, neskak dira, eta 26, mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna, atal bakoitzean.

Aipamendunek irailan egingo den bost eguneko literatur egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak, eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2018a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen arabera alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Peru Iparragirreri.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburua zure ikasleen artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburua, gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

“IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU”, deiadarka datorkizu liburua.

Euskara Zerbitzua

Elkarrekin

Peru Iparragirre

Ez ezazue sinetsi inspirazio zerutarra idazteko ezinbesteko baldintza denik. Baldintza bakarra du idazleak: idaztea. Horixe bera gogorarazi behar diot neure buruari hizki hauek elkartzen ari naizelarik. Euria ari du kalean, leihoaz bestaldera. Ordenagailua piztu dut, enegarren saialdian hitzaurre hau amaitzeko indarrrik izango ote dudan zalantzaz. Orain arte idatzitako guztia ezabatu dut, erraza baita ordenagailuko orriak tekla-kolpez garbitzea, koadernoko orriak zaborretara edo sutara botatzea bezain zaila eta erraza, behintzat.

Idazten hasteko abiapuntu berri baten bila jo dut, urruzunotar agiria eskuratu nuen garaiari buruz pentsatzen hasita. Ordudanik aldean izan dut, pilatu dudan liburutegitxoaren txoko batean, urte hartako Sagastiberri liburua. Menturaz zabaldu dut, eskuetan edukitzeak hamar izan direla iruditzen zaidan arren lau baino izan ez diren urteen joanak higitutako memoriari astinaldi bat emango diolakoan. Argazki bat eta gutun-azal bat topatu ditut hegalaren babespean. 2014ko egonaldian elkartu ginen urruzunotarrok ageri gara argazkian, mementoa betikotu zuen irudia atera zain, Aubixa aterpetxearen aurreko zelaian elkarren ondoan jarrita. Geroztik ikusi ez dudan jendearen aurpegiak topatu ditut bertan, eta baita orain dela gutxi ikusitako jendearen aurpegi gazteagoak ere, irailko eguzki epelaren oroitzapenetan bilduta.

Argazkiarekin batera, gutun bat, gutun-azal hautsian ozta-ozta bildua: egonaldiaren nondik-norakoak azaldu eta urte hartako irabazleonek datuak biltzen dituenak. Beste paper tolestu batzuk ere: Jaurlaritzatik helarazi zizkiguten hitzak, Aubixan bertan egin zuten ekitaldi erdi-ofizialean errezeloz entzun genituenak. Liburua osteraren ixterakoan konturatu naiz azalean bolalumaz idatzita ageri dela nire izena. Ez zait zergatia berehala etorri akordura. Elkarri eskaintza gisa hitz batzuk idazteko bata besteari pasa genion gure liburua; hitzak nori idazten genizkion jakiteko eta guri zegozkigunak bueltan jasoko genituela ziurtatzeko markatu genuen hala bakoitzak bere liburua.

Arreta handiagoz pasa ditut orriak eta letra-molde eta kolore ezberdinetan idatzitako lerroak hauteman ditut oraingoan inprimatutako testuen artean. Orduz geroztik ikusi ez dudana jendearen eta geroztik noizean behin ikusi dudana jendearen hitzak. Eskaintza batzuek hunkitu naute, eta nik haiei idatzitakoaren balioa zalantzan jarri dut. Ez dakit zehazki zer zirriboratu nuen besteen liburuetan, baina sentazioa dut ez zela inondik ere hain aproposa edo sentitua, eta ez merezi ez zutela uste nuelako, orduko hartan ere zer idatzi jakin gabe geratu nintzelako orri ia zurien aurrean. Lau urte igaro dira baina batzuetan hamar ere iragan direla iruditzen zait.

Samaldan etorri zaizkit, azkenean, oroitzapen batzuk. Haietan murgildu naiz ihes egin ez diezadaten, lau edo bost egun haietan bizitakotik gogoan dudana erreparatzeko. Orduko une batzuk gaurgero nire bizitzan garrantzitsuak izan direla konturatu naiz, idazketa-lantegietan sentitutako euforia, kasu. Norbaitek «orain, idatz ezazue» esateak dakarren askatasuna eta urduritasuna. Zorionez, inguruan horixe bera esan eta agindu didan jendea izan dut maiz, orain bidelagun

ezinbestekotzat jotzen ditudan esanak, garaian batzuetan jarrera zuhurra edo zalantzatia erakutsi arren babes gisa.

Ez dut oroitzapenotan erantzun osorik topatu. Galdera bat baitabilkit azken asteotan gogoan: «Zer da urruzunotarra izatea?». Esperientzia ederra izan zen Aubixako egonaldia, eta gerora ere antzekoak bizitzeko zorrea izan dut, lehiatu behar izan gabe.

Ahantzitako mito bat da Urruzunorena, figura ilun eta zentzuz hustutako bat, transmisioaren ehun saretuan zulo bat gehiago. Urruzuno bera nor zen jakiteko Euskal Literaturaren Hiztegia (EHU) kontsultatu behar izan dut, bere erreferentziarik batere ez dudala egiaztatuz. Bere izena daraman lehiaketara urtero aurkezten diren lanak, hainbat irakasleren eta idazle gazteren borondateari esker aurkezten dira. Azken urteotan ia isilpean irauten duen zerbait da, marjinala. Irabazleentzat, ordea, elkarrekin idazten hainbat egun pasatzeko aukera dute-entzat, beste dimentsio bat hartzen du erabat. Esango nuke orduan betetzen dela zentzuz, elkartzen diren gazteek ematen diotela, ezinbestean, zentzua eta badaezpadako prestigioa. Zentzu hori zabaltzen asmatzea falta zaio lehiaketari.

Daukaten garrantzia aitortu behar zaie gauzei; ez gehiago, ez gutxiago. Urruzuno, izatekotan, garrantzitsua izan beharko litzateke irabazle suertatzen direnentzat, idaztea zer den, literatur sorkuntza zer den lehen pertsonan bizi eta horretan gozatzeko aukera paregabea delako. Baina baita irabazle izateko aukera duten guztientzat ere. Interes antzekoak dituen jende ezberdinaren topagunea da urteroko egonaldia, esperientzia aberasgarria gehienontzat. Horregatik, urruzunotar izatea ez da zerbait eskusiboa izan behar, aukera bat izan behar da, ahalik eta gehien zabaldu beharko litzatekeena, duen garrantzia emanez.

Liburuaren amaieran zerrenda bat topatuko duzue, azken hogeita hamar urteotan, lehiaketa honen bi aldietan, irabazle izandakoen izenak eta lanak biltzen dituena. Urtez urte topagune bat izan da lehiaketa hau, baina lehiaketa bera ez da nahikoa. Zuen ibilbideetan etapa funtsezko bat izan daiteke elkarrekin bizitutakoa, etorkizuna idazten jarraitzeko parada.

Argazkiari begira geratu naiz berriro. Idazle gazte talde bat dakusat, elkarrekin, irribarrez.

Peru Iparragirre
Donostian, 2018ko maiatzean

POESIA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Zuei, zuri, guri... eta agian niri

Aroa Arrizubieta Barredo
Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

1.

Piztu itzazue argiak.

Piztu itzazue dauzkazuen argi guztiak,
argi nazaketen gutxiak.

Piztu itzazue.

Begira iezadazue.

Begira iezadazue zuen dezepzio begiz,
egin didazuen irain eta irriz,
ni neu senti nadin berriz
ikasiz.

Begira iezadazue.

Senti itzazue zuen hitz guztiak zuenak ez balira bezela,
pentsa ezazue beste norbaitenak direla, zer
sentitzen den jakiteko horrela.

Badakizuela!

Begira iezadazue.

Uki ezazue inperfektutzat duzuen nire gorputza,
senti ezazue nire titien hutsa,
nire eskuaren ezagutza,
nire aldaka kamutsa.

Putza!

Begira zaitzaketet.

Senti zaitzaketet.

Uki zaitzaketet.

Begira iezadazue.

Begira iezadazue begietara.
Nire begietan ikusi arte zuen islada.

2.

Nire egunerokoa irakurtzen utzi nizun.
Pozik zenirudien,
malko bat atera zitzaizun arte.
Orduan ohartu nintzen azken orrietara,
harrietara,
urrietara
iritsi zinela. Zurieta,
horietara,
urdinetara.

Zure izena agertzen ez zen horietara
zurieta,
urdinetara.

Desagertu egin zara.
Ez dakit ondo nire historiatik,
istoriotik,
histeriatik

desagertu zaren.
Baina jada ez zaude. Ez
zaitut ikusten,
ikasten,
ikazten.

3

Dena izan zen ama
rru bat. Berak nahi zuena zen bizi nire gain
eko solairuan. Ez gintuen nahi batera
tzen ginen arte. Baina zergatik ez?
kondu.

4

Bete eta hustu nintzen batera.
Hustu nituen faltatako ustebideak.
Hustu nituen barne ustiapenak.
Hustu nituen zuretzat nituen uztak.
Hustu nituen ahaztu izanaren usteak.
Hustu nituen ustekabeak.

Bete nintzen betegintzarrez.
Bete nintzen desiradun betilez.
Bete nintzen bizitzeko betaz.
Bete nintzen betirakoz.
Bete nintzen bete-betea...

Maite zaitut esatean.

5

Gogoan dut zure etxera joan nintzeneko azken aldia.
Oraindik ere malkotan hasten naiz
ezer ere ez dagoen maleta beteari begira:
Oroitzapenak dira.

Azken agurra,
azken musua,
azken zirria.
Beldurra, izua, irria.
Azken begirada,
azken laztana,
azken hitzak.
Besarkada, iragana, bizitzak.

Eskerrak bukaera oro omen den
beste zerbaiten hasiera ondoren.
Baina ez dakit zer izan daitekeen.
Horrek ikaratzen nau gehien.

Beldurra, izua, irria eta besarkadaren bila.
Iraganaren bigarren pasartea
zurekin emango ote dit bizitzak?

6.

Arrakalaz beteriko gizarte hau
arrakastan oinarritzen al da?
Arrazoi gabeko ikurrina eta
arranopean bizi gara
harrigarri dirudien
arren, lehengo jostun eta arrantzale
izan nahi bagenu lez.
Arrapaladan nire kaiola
arramazkatu nahi nuke, baina
harrapatuta nago.
Erre egiten nau horrek.
Errege-
erregina
erretxin izan nahiak. Behin eta berriz
erregutu eta
errepikatuko nuke nire bizitza hemendik
erreskatatu beharrean nagoela; baina ez dakit zein
erreakzio izango duen. Hurbil sentitzen dut
urrundu beharreko sentimendu
urruinkorra.
Urrumaka baina
irritu esan nahi diot
irrikan nagoela aske izan eta
irrintzi egiteko.
Eta
irribarretsu esan dit ez ahazteko
Irriak egiten duela harri eta orroen gainetik herri.

Irantzu

Maddi Aiestaran Iparragirre
Beasain BHI
Beasain

1)

Zaitut zorion-iturri,
zaitut negarra,
zaitut ahuldade gaizto,
zaitut indarra.
Nola zu zaren nire eredu,
nire uda eta nire negu,
gidatzen nauen iparra.
Bai ilargi eta bai eguzki,
egun goibeletan eta guzti,
argitzen duen izarra.

3)

Zeru beltzak sortzen dizkit
hainbeste malko,
nahi gabe egiten baitut
zugana salto.
Iluntasuna eta tristura,
denok egiten dugun lotura,
sendo horretatik kanpo.
Irri egiten saiatzen naiz maiz,
eta zinez harro sentitzen naiz
nirekin zauzkadalako.

2)

Mila malkoren lekuko
ohe iskina,
horrenbeste gautan lorik
egin ezina.
Bihotz-min gaiztoa eraisteko,
tristurari aurre egiteko,
nahiz egin ahalegina.
Goizegi joan zinen zerura,
ordutik dena da goibeldura,
egunik ez da berdina.

4)

Zenbat dohain miresgarri,
zenbat bertute,
erakutsi zenizkidan
urterik urte.
Gaur guztia da bihotz-herstura,
eragin didazu arrangura,
atzoko pozaren truke.
Zure irri goxo bat tarteko,
elkarrekin barre egiteko,
edozer emango nuke.

5)

Zure bila egin arren
ozen garrasi,
oroitzapenak dastatzen
behar dut hasi.
Zu ezagutzeko ohorea,
zure alaitasun kolorea,
nola dudan irabazi.
Nigan bada zure eragina,
ez dut inoiz zugandik adina
inorengandik ikasi.

7)

Nagoelarik umezurtz,
zu gabe, urri,
eskua dantzatzen dut fin
bezain bihurri.
Nahiz idazten dizudan guztia,
malko isilen batek bustia,
ezin duzun irakurri.
Nahiz jarraitu samin hau jasaten,
beti segiko duzu izaten
nire zorion-iturri.

6)

Denbora luzez luzatu
den pelikula,
soluzio efikazik
ezin kalkula.
Nahiz gure mugetatik harago
espero gabe zaren igaro,
seguru badakizula.
Zure umore, zure kementa,
bihotzean dudan oroimena,
ez da itzali(ko) sekula.

8)

Horren zapore gazia
duen zirrara,
negargura, tristezia,
edo ikara.
Zergatik joan zinen, Irantzu?
zu gabe bilakatu naiz antzu,
horren ulertezina da.
Zauden tokian zaudela, tori,
bi besarkada erraldoi, lodi,
ikaragarria zara!

Miraz

Maddi Aiestaran Iparragirre
Beasain BHI
Beasain

Udazkenean,
zuhaitzetik zorura
noragabe galtzen den
hostoaren modura.
Banoa.
Pixkanaka.
Geroz eta beherago...
Hondorago.

Banoa.
Pixkanaka.
Udazken-dantzaren bila.
Hosto gorri-hori saltariari so.
Miraz.
Geroz eta beherago...
Geroz eta hondorago...
Astunago.

Eguzkiari
begietara begira
hitz egin nahi diot.
Ahalegintzen naiz,
behin eta berriro,
burua altxatzen.
Astiro.

Begien norabidea aldatzen.
Emekiro.
Ezin dut.
Hemen darrait...
Ipar-haize gaiztoaren gatibu.
Aurpegi gorri biribila amets.
Hosto gorri-hori saltariari so.
Miraz.
Geroz eta astunago...
Ahulago.

Amaigabea da amildegia.
Azkengabea.
Mugagabea.
Banoa.
Pixkanaka.
Geroz eta ahulago...
Akituago.
Amaigabea da amildegia.
Apur bat beherago...
Apur bat hondorago...
Ezin dut gehiago!

Zoruaren kontra
lehertu nahi dut.
Zoruaren kontra
eztanda egin nahi dut.
Behingoz.
Hondoa jo eta gorantz egin.
Udazkeneko hosto saltariaren modura.
Indartsu.
Ipar-haize gaiztoari aurpegia eman.
Hondoa jo eta begien norabidea aldatu.

Eguzkiari hitz egiteko
begietara begira.

Udazken-dantzan murgildu nahi dut,
zuhaitzetik zorura
noragabe galtzen den
hostoaren modura.

Hegan egin.
Aske sentitu.
Zerua probatu.
Dastatu.

Hegoak moztu dizkidate, ordea.
Amildegiaeren ertzera naramate.
Berriro.
Pixkanaka.
Hil nadin,
dadin,
askatasuna.

Baina nik, bizirik
diraut.
Udazken-dantzaren bila.
Aurpegi gorri biribilaren begiak amets.
Hosto gorri-hori saltariari so.
Miraz.

Hutsuneak

Amaia Irastorza Otamendi
Pio Baroja BHI
Irun

1936

Errauts zaporea ahoan,
odol usaina giroan.

Negua bero,
elurra su,
kalea hauts.

Ama!

Seme!

Ama!

Seme!

Ama!
Seme, seme!

Malkoak gorri.

Ama...

Laztanak lauso,
dardarari so.

Seme...

Kalea su,
etsia zu.

Negua bero,
elurra zu.

Errauts zaporea ahoan,
odol usaina giroan,
semearen eskua altzoan.

Etxea hauts,
gorpua hotz.

Eta bi bihotz errauts.

Inor ere ez

Zertarako egiten du
bihotzak taupa,
odol lika
zainetatik arrastatzeko ez bada?

Erraiak biziratzeko,
bustitzeko ez bada?

Nork agindu dio,
bihotzari,
bor-bor egiteko?

Nork eskatu dio alaitzeko?
Bizkortzeko?
Zertarako?

Maitasuna
bihotz taupada bakarrera baino ez denean murrizten;
“Maite zaitut”
txikitan probatzen zenituen amaren kotoizko soinekoak
bezain handi
geratzen zaizunean;
sabaira begira geratzen zara.

Zure bizia sentitzen.

Soinekoak,
sorbaldetatik irrist egiten dizu.

Eta ispiluari begira ikusten duzu zeure burua,
mototsetik ihes egiten duen xerlo lirainak
aurpegia laztantzen dizun bitartean.

Listua sentitzen duzu
zintzurretik behera joaten,
eta,
denbora gehiegi loturik eman duen korapiloa
miazkatzen dizu.

Hotzikara batek gogorarazten dizu
bizirik zaudela,
eta zure zainak,
poliki-poliki,

betetzen ari direla.

Motel,

mantso;

goibel.

Orduan konturatzen zara
nire bihotzak ez duela jada
zugatik bor-bor egingo.

Ez dela zugatik bizkortuko,
ez geldituko.

Geldi baitago.

Arnasa
hartu behar duzula gogorarazten diozu zeure buruari.

Eta,
begiak ixtean,
ez duzu
inor
ikus
nahi.

Ezjakin baten pentsamenduak

Nora Gondat Unzalu
Pasaia Lezo Lizeoa
Pasai Donibane

Hain dira aldrebesak, ederrak, itsusiak, gaziak,
biziak, ilunak, turkesak, arrosak eta arraroak nire
pentsamenduak
non sarritan, elefante lodikote, kapeladun eta
txokolatezaleen itxura
dutela pentsatzen dudan,
eta hegan doazela,
gauzak ulertzeko nire nahiaz eskapu eginez...

Eta noizbehinka, autonomoki,
nire eskuen agintea hartzen dute
arkatz bat hartuaz
eta marrazkiak paper batean eginez,
haien hipotesiak azaleratu nahian,
mundua ezjakintasunetik azaltzeko saiakera zentzugabean

Honela, horrelakoak sortzen dira...

Txokolatea ala limoia?

Eta zein ederra den
helatu dendara bidea.
Milaka zapore burutik pasatzen diren unea.
Non boteretsu sentitzen zaren
izozki bakoitzaren alde ederrena ikusirik

eta mangoaren, txokolatearen edota limoiaren ahogozoek
sor diezazuketan dastatze orgasmikoa imajinatuz.
Aukera guztiak zure eskuetan sentitzearen
eta erabakitzeke duzun ahalmenaren ondorio itsumena
izanik.

Baina dendara sartzen zarenean
dendariak ea zer nahi duzun galdetzen dizu,
zure begiak irekiaraziz, errealitatera buelta eginaz.
Eta dastatzen itzel haren faltsutasunaz kontziente egiten
zara
presio bat sentituz, urduritasun bat.
Mango izozkiaren hautuak
txokolatearen goxotasuna ez sentitzea ekarriko dizu.
Txokolatearen aukeraketak limoiaren gazitasun atsegina
galtzea.
Imajinatu dituzun sentrazio guztiak jasotzen dituen
zaporearen existentzia eza onartzea zaila egiten zaizu
eta hasieran boterea ematen zizun ahalmen horrek
orain beldurtzen zaitu.
Hautuaren edertasun eta baita kostuaz jakitun egiten zara.

Lore basatien errepresioa

Esaten dute ume oro
besapean ogi barra bat duelarik
egiten dela jaio.
Nik ordea landare bakan
eta ikusezinak nekartzan besoen azpian,
pixkanaka nire gorputz guztia inbaditzen
joan ziren landareak,
denborak ureztatu dituenak
eta lore basatiak bailiran
oihan bihurtu direnak.

Badirudi ordea,
jendeak ez dituela aske hazitakoak gustuko
eta beharturik ikusi naiz
nigandik sortu diren izaki hauei egitera uko.

Eta amalurrari zuhaitz guztiak
kenduko bagenizkio bezala,
biluzturik uzten dut nire azala,
itxura on bat emateko nahiak
sustrai bat ateratzearen minari eginez itzala.

Honela, jakin nahiko nuke
ea noiz ahaztu genuen
lore aske eta basatien edertasuna,
geurea zena.
Jaiotzetik itsusia zela sinetsarazi zigutena,
kanon deituriko neurri batzuegatik
ordezkatu dena.

Amaia perfektua

Ahalik eta lore gehien usaindu nahian
dabil mitxirrika, mitxeleta, pinpirina edo pinpilipauxa
Bihar izango baita sinpleki hautsa, errautsa edo zerrautsa
nondik sortuko den berriro larrosen hatsa.

Gizakia ordea, loreak usaintzeko denborarik ez
eta landareen ongarrri bilakatzea baino
amaiera duinago eta bere neurrira egindako
baten bila dabil
mundura etorri zenetik,
heriotza bere lagun egitearen saiakeran.

Denbora galtzera beharturik

Ezin da heriotzaz hitz egin.

Ezin da gure gorputzaz hitz egin.

Ezin da ametsez hitz egin.

Ezin da gure beldurrez hitz egin.

Gure ikasketez hitz egin behar da.

Eguraldiaz hitz egin behar da.

Gure etorkizunaz hitz egin behar da.

Heriotzari irribarre egiteko,

gure gorputza ezagutzeko,

amets egin

eta beldurra sentitzeko erabil genezakeen denbora

xahutzen dugun bitartean.

Eta gainera probetxuzko sentitzen gara

gauza hauetaz hitz egitean,

jakin gabe gure burua ari garela engainatzen

edota hau onartzeak dakarren duintasun galera

saiheste arren.

PROSA A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Gora motxilak

Iraide Aurrekoetxea Intxausti
Lauaxeta Ikastola
Amorebieta-Etxano

“Astebururo astebururo, kilometroz kilometro, irririk galtzen ez duten familia guztiei”

Lurra, Ilargia eta Eguzkia lerrokatzen direnean, Ilargiarena baino hiru handiz handiagoa den Lurraren itzalak, ilargia estaltzen du; partzialki edo guztiz. Eklipse orok hiru orduren bueltan irauten du, iluntzen hasten denetik dena argitu arte. Halaber, eklipsea ematen den tarte horretan Ilargia ez da guztiz iluntzen, Lurraren atmosferaren islak argitzen baitu tonu gorritzat ilun batez.

2009/04/13

Kaixo, aita.

Zelan zaude?

Zortzigarren hortza jausi zait, bederatzi urteko ume baten hortzak izan beharrean sei urte dituen ume batenak ditudala esaten baitu dentistak. Horregatik, Maritxu teilatukok 10 euro eman dizkit trukean. Amak dio hagin handia zelako eman dizkidala bost euro gehiago; baina nik uste dut ikastolan nire lagun Mireni lagundu izanagatik jaso dudana saria dela, amak baitio Olentzero, Mari Domingi eta Maritxu teilatuko goitik begira daudela, izarretatik zintzilik, egiten dugun oro epaituz.

Gauetan, ezin loak hartu ibiltzen naiz; gaueko izarrei so egoten baikara sarri ama eta biok; batez ere izarrek daude-
nean, zeruko mantu beltza kaleko bonbilla zuriz janzen dela baitirudi. Amak txikitatik esan ohi dit, izar zuriak atxikituta dituen mantu beltz horrek zure lepoa dakarkiola burura, zure lepoaren antonimoa dela, hura orezta ilunek apaintzen zuten lepo zuritxo baia. 103 orban inguru dituzula esaten du beti, eta gero, suposizio hutsa dela gehitzen du; oreztak kontatzen zizkizun bakoitzean, soilik hogeita hamahiru zenbatzera heltzen zela dio, eta nekatzen zen bakoitzean, 100 orezta inguru falta zitzaizkiola suposatzen zuen. Hala ere, nik izar-
rrak baino gehiago ilargia dut gogoko. Ilargiak izarrek baino handiagoa ematen du eta itzal desberdinak ikusi daitezke bertan. Izan ere, ilargiak duen itxuren artean gogokoen du-
dana ilargi beta da. Horregatik, egutegian egunak gorritz bilduta ditugu ilbetea noiz izango den ez ahazteko.

Gutuna amaitzean, amari emango diot, atearen atzeko aldean ezkutatuko naiz eta malko artean irakurriko ditu azken hitzak, aurpegian alboz alboko irribarrea margotzen duen aldi berean. Egongelako atetik at begiratuko du eta ni ikusiko nau; gero, akatsak zuzenduko dizkit beti egiten duen legez, eta esaldi oso batzuk berridatziko ditu, gutunak bere kutsua izan dezan.

Maite zaitut,

Ixone.

Oharra: gogoratu, bihar izarrek bederatzietan ikusi behar ditugula aldi berean.

Ilargi eklipseak hemisferio oso batetik dira ikusgai eta ez dira sarri gertatzen, Lurraren eta Ilargiaren orbiten artean inklinazioa dagoelako; beraz, lurraren itzala ilargiarenaren gainetik edo azpitik pasatzen da gehienetan; hortaz, ez da ilbete guztietan ematen, sei hilabetean behin baizik; hau da, ilbetea ekliptikaren planotik gertu izaten denean.

2012/09/17

Kaixo, aita.

Hobetu zara? Amak esan dit pixka bat gaixorik zaudela, eta horrek gutun hau idazteko gogoia indartu dit. Amak ezkutuan mantendu du zu gaixorik egon izana eta horrek arduratu egin nau; zurekiko sekreturik ez gordetzea zin egin baitzidan.

Hemen dena doa antzera. Ikasle berri bat heldu da klasesera, Saharakoa dela dio eta Arij du izena. Arijek kontatu dit bere lurraldean gauzak oso desberdinak direla. Etxeak, pertsonak, dendak, kaleak, fauna, flora, arropak, janaria, zapatak... dena desberdina dela dio, zerua, izarrak eta ilargia izan ezik; nahiz eta bere aburuz, Saharakoa hemengoa baino hainbat politagoa den; noizbait batera ikusi behar dugula esaten dit, alegia. Nik berdina izan behar dela pentsatzen dut, baina berak politagoa dela esaten jarraitzen du.

Duela bi egun, Arijek ikaragarria iruditu zitzaidan sekretua kontatu zidan. Klandestinitatean gorde beharreko sekretua dela xuxurlatu zidan belarrira, eta nik isilik egongo naizela zin egin nion; orain zuri kontatzen ari naizen arren. Txalupa batean etorri zela esan zidan, eta bederatzi egun igaro zituela bertan. Duela hiru urte gertatu zen hori eta,

horregatik, berak ez ditu zehaztasun oro gogoan. Hala ere, pasatu zuen beldurra oraindik buruan duela dio; amak begiak eskuekin estaltzen zizkion arren, jendeak nola sufritzen zuen entzun zezakeela azpimarratzen baitu. Ailegatzean, herri barrura heltzeko zailtasunak izan zituen, eta bere familiak aipatu nahi ez dituen gauza klandestinoak egitea izan zuen bide. Horrek guztiak asko hunkitu ninduen. Amak esaten duen legez “batzuetan ez baikara ohartzen zer ondo bizi garen hemen beste batzuen aldean”.

Gero, guraso eta anaia txikiarekin etorri zela esan zidan, arreba nagusia eta gainerako familia bertan zeudelarik. Oso ondo ulertu nuen. Arreba faltan botatzen zuela esan zidan; ezin ziola negar egiteari utzi eta edozer emango zukeela hura etor zedin; eta nik zutaz hitz egin nion. Nik zu urrun zaudela esan nion, eta oso gutxitan dudala zurekin berrogei minutu konpartitzeko aukera, baina pertsonak faltan botatzeko mannerak asko direla esan nion, eta hobe dela faltan botatzen duzun hori izandako momentutxo zoriontsuengatik gogoratzeari, izan eta izango ez diren momentuengatik negar egitea baino. Arijek berehala korapilotu zituen jertsearen mahukak begiak sikatu ahal izateko; nik besarkada bat eman nion bueltan eta gustura hartu ninduen bere besoetan. Poztu egin nintzen, eta esperantza eman zidan; zu berriz etxean ikusteko esperantza.

Faltan sumatzen zaitut, aita,
zure Ixo.

Hinduek, ilargi eklipseak Rahu deabruaren mitoaren bitartez azaltzeko saiakerak egiten zituzten. Haien zioten, erdijainko eta deabruen esnezko ozeanoa zeharkatu zutela

*(7 ozeano exotikoetako bat) hilezkortuaren nektarra esku-
ratu ahal izateko.*

*Hori gertatu zenean, Vishnú jainko gorenak ilaran jar-
tzeko agindu zien ozeanoa zeharkatu zuten haiei. Hasteko,
erdijainko bakoitzari trago bana eskaini nahi zion eta gero,
sobran zegoena deabruei.*

2016/06/19

Aspaldiko aita,

Zelan doa dena kartzela berrian?

Egia esan, ez nintzen batere harritu kartzelaz aldatzera behartu zintuztenean; goizago egin ez izanak harritzen nin-
duen gehiago. Kartzelak dena dira espetxe; beraz, denak dira
itsusiak eta motzak; baina, azkena nahiago nuen. Beti egin
izan zait arrotz; eskuak haien osotasunean esku ahurrak
bezain txikiak nituen egun haietan latza zen oso, baina zu
bisitatu zintudan azken aldia oso ezberdina iruditu zitzaidan,
eta espetxe hark Arijen herria baino urrunago zegoela ema-
ten zuen. Kartzela honetako kristala lodiagoa da, hotzagoa,
kristalak banatzen dituen bi aldeen polarizazioa hedatzen
du, alegia; eta azken aldi horretan, ezin izan nuen zure al-
tzora jaurtitzeko nahia jasan.

Zuk espetxez aldatu duzun legez, nik motxilaz aldatu
dut. Azken motxila zaharkituta zegoen, eta denborarekin,
bidaietan gero eta arropa gehiago daramadanez, amak mo-
txila berria oparitu zidan atzo. Horrez gain, galtza berriak
ere erosi ditut, izardun galtzak, amaren gustukoak, horrela
zure lepoa nire behatzekin ikutzen dudala senti dezaket.

Badakit etxeko egoeraz hitz egin nizula telefonoz, baina hain da xelebrea non zuri kontatzeko beharra sentitzen dudan. Lexurik bertsoan ematen ditu egunak. Izan ere, asteak daramatza barnean duen Maialen Lujanbio horren bila. Ni oso sakonean bilatu behar duelakoan nago, baina amak txalotu egiten duenez, nik hobetzen jarraitu dezan esaten diot.

Bertso gehienek zure inguruan dihardute, eta hurrengo bisitan bertsoaren bat abestuko dizula dio. Ea egia den!

Txokolatezko hamar mila muxu, aita Laster arte.

Oharra: ez ahaztu. Hilabete barru ilargi eklipsea ikusi behar dugu.

Rahuk orduan erdijainko itxura hartu zuen, nektarra zegokion baino lehenago eskuratu ahal izateko. Bere txanda zenean, kopa altxatu zuen eta Soma (Ilargiaren jainkoa) horretaz konturatu bezain laster, Vishnú abisatu zuen. Honen burua ebaki zion bere chrakra diskoarekin; baina Rahuk nektar tanta jada ahoan zuenez, bere buruak hilezkortasuna jasan zuen, eta ebakitako buru bizia zeru-gangatik zintzilik gelditu zen. Egin ziotenaren mendekuan, bere buruak noizean behin ilargia jaten duela esaten da. Horregatik, jada gaur egun, hinduak haien etxeetan ezkututzen dira ilargi eklipse bat izaten den bakoitzean.

2018/01/28

Kaixo, aita,

Etxepean dagoen tabernara noa sarri; ikastolara joan aurretik osabak gosaria eskaintzen baitit bertan. Barraren eskuinaldeko bostgarren aulki luze horietako batean jesartzen naiz eta barran nagoela ondora norbait badatorkit hizketan hasten natzaio, baina pentsakor egoten naiz gehiengotan. Barran egiten ditut hausnarketarik sakonenak. Ezustean sortzen zaizkit gisa horretako galderak. Tupustean. Eta haien erantzuna bilatzen ematen ditut egunak. Aitzitik, atzo, Miren eta ni ikastolarantz gindoazela, aitarekin haserre zegoela esan zidan. Nik zutaz pentsatu nuen, eta irentsi ezin nezakeen ur gaziko korapilo handia sentitu nuen saman. Oroitzapen eta sentimendu desberdinak nahastu zitzaizkidan, eta estalita dudan samin hau kontatzeko gogoia izan nuen.

Nire lagunek haiek urtebetetzeak ospatzen dituzten bitartean, nik horri uko egin behar diot bederatzi ordu ditudalako zain autobusean; nire lagunak asteburuetan lo-kuluxkan dauden artean, ni Gaztelako zeruko hodeiak zenbatzen noa, loak hartu nazan; nire lagunak klasera ailegatzean eta asteburuan zehar egiten dutenaz hitz egitean, nik asteburuko zoriontasuna 40 minutura murriztu dela pentsatzen dut, asteburu gehiena errepideko marratxo zuriei begira eman baitut.

Ez dut uste bidezkoa denik, aita. Euskal presoei ezarri zaien zigorra, beraien ingurunetik hurbilen dagoen espetxean egoteko eskubidea urratuz, haien sorterritik urrun dauden kartzeletan sartzea da. Salbuespeneko espetxe politika honek presoen eskubideak erabat bortxatzen ditu. Nik ere kondena betetzen dut, zigorraren pieza nagusienetariko bat bainaiz; txiza egiten digutela eta euria dela diogula esaten dute, txiza ez, kaka egiten digute. Eta hori, noski, ez da justizia, mendekua baizik; presoen familien aurka jotzen duen mendekua,

milaka kilometro egitera behartzen gaituen mendekua, ehundaka senide eta lagun kondentzen dituen mendeku zikina.

Eta niri berdin zait berrogei urte edo badira berrehun eta bi, nire adoreak nektarraren hilezkortasunaren tanta hartu baitu. Nire kontra egin nahi dute, baina ez dute lortuko. Hautzaroa puskatu nahi izan didate, baina izan dudan hutsune hori betetzeko zuk eman didazun maitasunaren adinako indarrak loratu ditut. Indartsua naiz eta utopietan sinesten dut; ez dute lortuko, ez dute irabaziko, gure artean dauden kilometroek ez dutelako nire etsipena garaituko. Kristalak ez gaitu banatzen, kristal lodiak ez du eklipsea hausten, kristal lodiak ezin du ukatu ilargia eta lurra noizean behin lerrokatzea, ezin du ukatu lurraren itzalak ilargiari margotzen dion irribarrea; ezin du ukatu zu eta ni lerrokatzea, zu eta ni batzea, nahiz eta berrogei minutu soil izan; luzatzen zaizkidan berrogei minutuak nahikoak direlako darizun usaina barneratzeko, irribarre bihurtzeko malkoa, eta zure besoetan besarkatu ezin naizen egunetan, nire bihotzeko zirrikituren batean ezkutatuta zaudela jakiteko.

Gutuna zeruari begira zaudela irakurriko duzulakoan nago, ordu berean ilargiak ikusteari eusten diogulako. Zuk ezin dituzu izarrak ikusi, baina imajina ditzakezu, imajina dezakegu ilargia eta imajina nazakezu ni zeruari begira. Orain ilbeherak zilarrezko irri fin-fina dagi. Beraz, malkoak eta negarrak motxilan sartu eta irria zintzilikatu dut aurpegiari, Ilargia keinuka delako ari, irri egiten duenari.

Irri egin, aita;

Ilargi beteraino eta bueltan.

“Astebururo astebururo, kilometroz kilometro, irririk galtzen ez duten familia guztiei”

Han ez omen baita malkorik

Olaia Azurmendi Marcos
Aita Larramendi Ikastola
Andoain

Imajina ezazu bart gauean lotaratu behar zinen izara urdin eta leun haien gozotasuna sentitu beharrean, orri zuri bat gogorarazten dizun maindire batean bilduta esnatzen zarela. Imajina ezazu *The Beatles* talde kuttunaren posterraren ordeztu, lore soil baten irudia inprimatua duen koadro bat topatzea. Imajina ezazu aldameneko ohean ahizpa lo seko aurkitu beharrean, ezker besoa erabat bendaz josia duen neska topatzen duzula.

Bip- Bip- Bip...

Aste batzuk atzera, dutxatik atera berri nintzela, ispiluaren aurrean jarri nintzen, biluzik, normalean egin ohi dudana. Eztarria urratua nuen, ur jarioaren azpian kantatzen ibili nintzen maitasun-kantuen ondorioz. Eta bularrean orbain bat nuela ohartu nintzen. Nire kanela koloreko azal ilunean nabarmen ageri den orbain bat. “Sofia! Etor zaitezke?” dei egin nion ahizpari. “Zer jazo da, Laura?” galdetu zidan, bai baitaki dutxatik atera ostean deitzen diodanean ez dela ohikoa... Deitu nion azken aldia hilerokoa lehenengoz etorri zitzaidanean izan zen. Bularreko orbainaren berri eman nion, eta lehenago ohartu ez al nintzen galdetu zidan. Noski ez nintzela ohartu.

Pare bat orduren buruan ospitaleko gela batean nengoen preso. Orduak igaro nituen kontsultaz kontsulta, hainbat

mediku, erizain eta existitzen zirenik ere ez nekien adituen eskuetatik igaroaz. Eta azkenean bidali ninduten itxaron-gelara. Gurasoak, Sofia eta ni besterik ez geunden, bakoitza bere pentsamenduen hodeietan murgilduta, ideiak argitzen ez zigun behe-lainoan zehar galduta. Ederki nekien ni nintzela egoerari bira gutxien ematen nizkiona. Zertarako balio zuen kez karen gatibu izatea, oraindik ziur ez genekien kasuaren aurrean? Denok imajina genezakeen zoritxarrez eta ospitalez beteriko aro berri baten hasiera izan zitekeela.

Goizean goiz heldu ziren proben emaitzak gure eskuetara. Bata zuriz jantziz zetorren 40 bat urteko emakumeak azaldu zigun orri luze haietan letra txikiz idatzirik zegoen guztia. Hitz polit eta errealitatetik gehien urruntzen gaituztenetan adierazita, neure zelula propioak nire sistemaren kontra matxinatu direla esan genezake. Errealitatea eragotzi eta baztertzeak sendatzeko balio ez duen hitz soilak besterik ez direnez, laburki esan genezake: bularreko minbizia diagnostikatu zidaten.

Egoerarik aurreratuenean ez dagoela esan baziguten ere, 2. estadioa da nire egoera, hau da, kantzer aurreko egoera igaro du jada. Bularreko minbizia badudala jakin ostean ohartu naiz hilabeteak atzera irten zitzaidan bultoaren egiazko esanahia, hiru zentimetro inguru neurtzen duen tumorea dudala. Ordu batzuk atzera hartu zidaten fluido lagin bat mikroskopioan aztertu ondoren odola topatu zutenez, tumorea kaltegarria dela jakin zuten.

Beste proba batzuk egin ostean etxera bidali ninduten, egun pare bat barru berriz itzultzeko agindua zeraman orri mordoa eskuetan nuela. Ebakuntzarako mentalizatzen hasi behar nuen lehenbailehen. Ebakuntza bat besterik ez zen izango, larritzeko arrazoirik ez. Mastektomia bat zain nuen.

Bular osoa galduko nuen, minbizia beste ehunetara igarotzeko probabilitatea eragotzi nahi banuen behintzat.

Etxera heldu bezain laster erantzi nintzen, eta hain gogoko nuen gau-atorra burutik behera erortzen utzi nuen. Ohean etzanda, banekien ezingo nintzela jaiki eguazten hartan. Gau osoa esna ibili ondoren, betazalek, inoiz baino astunago, begiak ixten zizkidaten, baina jakin banekien ez nintzela lokartzeko gai izango. Beharbada errazagoa izango litzateke behin betiko itxi eta bertan geratzea, han ez omen baita malkorik, ez sufrimenduaren preso izan beharrik.

Telefono-hotsak eteten zuen etxe hartako aldizkako isil-tasuna. Gurasoak familiako kideei azken berria banatzen ari ziren. Ez nuen hitz egiteko gogorik, eta lur jota nengoen. Hala ere, bazen lagun berezi bat, hain berezia non ezagun bakarra izango baitzen nire eskutik albistea jasoko zuena. Mugikorrean *Sinue* izenarekin gordeta dudan mutilari deika hasi nintzen. Hilabete batzuk atzera ezagutu nuen 16 urteko nerabea, gaur egun nire lagun mina dena. Hitzez adierazi ezin den izaera du.

Iraganak etorkizunerako eskarmentua ederki erakutsi dio, eta zin dagit ez dudala Sinue bezalako pertsonarik ezagutu, ezta ezagutuko ere. Berria komunikatu zidatenetik lehen aldiz egiten dut negar, bere ahotsa entzutean. Zer gertatzen zen galdetu aurretik nire izena errepikatzen zidan, “Laura, entzudazu, lasai zaitetz, bai? Zuregana noa.”

Ohe ertzean jesarri nintzen, mandala bat foku zuen horma zuri-beltzari begira, bi begi umeletatik oharkabean isurtzen nituen malkoen jarioa eteteko ahalegin minimorik egin barik. Astiro jaisten ziren, masailean behera irristan... Noizbait iritsiko ziren iritsi behar zuten helmugara, edo

beharbada nire ezpain idorretan galduko ziren, eurak baitziren tantek galtzeko zuten bide bakarra. Amak ireki zion atea Sinuek hiru aldiz jotako txirrinaren ostean. Zurubietan gora entzun nitzakeen bere oinen pauso arinak, ahalik eta arinen igotzearren binaka igotzen zituelarik. Kax-kax deitu zuen nire gelako atera. Apur bat lasaitu ziren malkoz beteriko begi gorritu birekin begiratu nion. Bere irribarre tristera begiratu besterik ez zegoen amak berria eman ziola jakiteko. Ezer esan gabe, isiltasuna lagun genuela eseri ziren nire alboan, eta zalantza egin gabe burua bere sorbaldaren kontra jarri nuen. Sinuek bazekien, ordea, behar nuen azkena hondoratzea zela. Hatz biren laguntzaz, bion aurpegiak parez pare ipini zituen. Ez nintzen gai bion begiradak gurutzatzeko, bai bainekien gordetzea hainbeste kostatzen ari ziztaizkidan ur- tantak berriro ere euritan hasiko zirela.

“Entzudazu, Laura. Hasteko begiraidazu”, eta hatz lodiaz matela lehortu zidan. “Badakit ez dela erraza izango, maitea, eta ez naiz aurkakoa esateko gai izango”.

Kontuan eduki beharreko guztia aipatu zidan, bakarrik ez naizela sekula egongo zin egitetik hasi, eta bizitzak gerla okerrenak gudari onenei ematen dizkiela azpimarratzeraino. Beldur nintzela esan nion ahapeka. “Laura, gogoratu ausarta ez dela beldurrik ez duena, izua eduki eta aurre egiten diona baizik.” Eskua nire buruaren atzealdean ipini, eta bere bu-larraldera hurbildu zuen nire burua. Bertan negarrez hasi nintzen. Orduan, aldiz, Sinuek samina askatzen utzi zidan, ongi baino hobeto baitaki barruan gordetzeak min besterik ez duela egiten. Mutilaren besoak harresiak ziren niretzat, aurkariez babesten nindutenak. Gudu hau ez zen arerioaren aurka, ordea.

Neure buruaren aurka borrokatu behar nuen.

Hurrengo egunak ospitalean igaro nituen, beste hainbat probaren artean metastasiaren sintomen bila. Ebakuntza beharrezkoa nuela ziur nekien, baina hainbat tratamendu izan nitzakeenez, hamaika lagin jaso eta aztertzen igaro zuten medikuek astea. Sinuek institutura joan behar zuen, baina txirrinak jo bezain agudo tren-geltokira joan, eta ordubete baino lehen bertan izaten zen, xiringa-orratz luzeen zaindari. Berekin igarotako ordu amaigabeek kemena ematen zidaten. Jada prest nengoen, aurre egingo nion izuak gauerdian iratzartzen zaituen amesgaiztoa baino gehiago amiltzen ninduen lokamuts hari.

Orbaina topatu nuen arratsetik zortzi egun igaro dira, berriz ere ospitalera azaldu naizen arte. Gaur goizean ez dut iratzargailu beharrik izan, gau osoan ilargiaren orbita izan baitut ordulari. Begiak erne, eta bi eskuak bularretan igaro ditut orduak, azken aukera izango baita, nire gorputza erabateko osotasunean miatzekoa. Ezker bularra da berriro ere sentitu ezingo dudana. Egunsentiarekin batera jaiki naiz, Sofiak bekokian muxu txiki bat eman ostean. Laurok autoan sartu gara, bosgarren eserlekua libre utziz. Sinuek ebakuntza-gelara sartu arte itxaron nahi zidan, zin egindakoari eutsiz. Baina aita eta ama besterik ezin izan dira nirekin sartu. Bata zuriz jantzi naute, eta itxaron-gelara bidali. Atea gurutzatzera nindoala, Sinuek beso batetik oratu nau, eta inoiz ez amaitzea gustatuko litzaidakeen besarkada eman dit. “Urrun bagaude ere, beti egingo gara zure altzoan, ez ahaztu”. Sofiaz ere agurtu naiz, eta dena ongi irtengo dela zin egin dit. Eskerrak eman dizkiot, bere intentzio osoz esan baitit, baina zure esku ez dauden agintzak betetzea irakurri gabeko liburuaren amaiera asmatzen saiatzea bezalakoa da.

Anestesia-gelara eraman naute, errotulagailuz arrasto batzuk egin bularraren inguruan, eta gurasoen eskuak neu-

reekin lotuak ditudala, errealitatetik urruntzen joan naiz pixkanaka...

Bip- Bip- Bip...

Imajina ezazu aldameneko ohean ahizpa lo seko aurkitu beharrean, ezker besoa erabat bendaz josia duen neska topatzen duzula. Oraindik erdi lo banago ere,

gertatzen denaz jabetzeko gai naiz jada. Sorbaldan amaitzen da bere ezker besoak egon beharko lukeen zatia. Oraindik izenik ez duen neska esna dago, eta, beraz, argi dago ez diotela ebakuntza gaur egin. Minbizia dugunon solairuan gaude, eta zein kantzer mota ote duen galdetzen diot neure buruari... “Laura, esnatu zara dagoeneko!” aterarazi nau amak pentsamenduetatik.

Ohetik mugitu ere ezin naiz egin. Bisitak egunean bitan besterik ezin ditudala jaso azaldu didate, gurasoetako bat eguneko hogeita lau orduak egon badaiteke ere. Min apur bat sentitzen dudan aldiro erizainari abisatu, eta hamaika pilulaz drogatzen naute. Gaurkoan ama geratu da zaintza egiten. Zazpiak aldera da etortzekoa Sinue, eta biok bakarrik uztearren, kafe baten bila irten da, lagunaren zain bakarrik utziz.

Lehen aldia da ebakuntzaz geroztik bakarrik uzten nautela. Izenik gabeko neskak, ordea, esnatu naizenetik bakarrik dago. Liburu mordoa du ohe alboko mahaitxoan, horietako asko identifikatu ahal izan ditut. Baina eskuartean duenak arreta piztu dit. *Le Petit Prince*, dio liburu argalaren azalak. Klasiko bat dela badakit, baina haur txikientzat zela uste izan dut beti...

–*Le Petit Prince*, 1943an argitaratua –hasi zait berbetan izenik gabeko neska. Ezustean harrapatu nau, irakurtzen ari

den liburuari begira. Sekula irakurri ez dudala azaldu diot, eta horrexegatik piztu didala interesa.

–Sara naiz, urte askotarako –eta izenik gabeko neskak izena du jada. Nire izena esan diot, baina hizketaldiarekin jarraitzea eragotzi dit ateaz bestalde kax-kax deitu duen mutilak.

Kadira ohe albora ekarri, eta bertan eseri da laguntza behar dudan galdetuz. Bularralde osoa estaltzen didan bendaren azpian ditudan zauriek min egiten al didaten galdetu dit, eta geldirik nagoen bitartean ongi daudela erantzun nik. Ezker eskua hartu dit bereen artean, hotzikarak eragiten dizkidaten laztan leunak eginaz.

Ebakuntzaren prozesua azaldu diot, anestesia eman zidatenetik esnatu naizen artean gertatu dena. Amaitu dudanean, irria ahoan duen mutilak begiratzen dit.

–Nor da aldameneko ohean dagoen neska? –galdetu dit ahots baxuz, izena jada baduen neskak aditu ez dezan. Eten-gabe Sarari begira aritu naiz, Sinueri dena azaltzen nion bitartean.

–Irakurtzen ari den liburuak interesa piztu dit, besterik ez... –azaldu diot. Ederki asko dakit, ordea, Sinuek nahiko nukeen baino gehiago ezagutzen nauela. Berbetan jarraitu dugu, bisitarako zuen denbora agortu den arte.

Lau egun barru etxean nago jada. Oinazea uste baino gehiago baretu den arren, norbaiten laguntza behar dut eten-gabe, zama minimo bat duen ezer ezin baitut neure kabuz jaso. Eta Sarari dagokionez... Ni etxeratu baino egun bat lehenago bidali zuten. Ordu luzeak igarotzen genituen ber-

betan, ni ohatzetik zutitu ezinik, hari lau orduro sendaketa egiten zioten bitartean. Osteosarkoma duela azaldu dit atzeko egun hauetan, humeroan azaldu zitzaiola hilabete atzera, eta zer eginik ez zegoenez, medikuek anputaziora jo dutela, ondoren kimioterapiarekin hasteko. Bere zenbakia ere eman zidan, mezu bidez komunikatzen jarraitu ahal izateko. Egunero hitz egiten dugu, elkarren prozesua nola doan kontatuz. Baina ezinegon bat nabari dut sabelean. Sararen ezti koloreko begiek eta ospitaleko errezeletatik iragazten ziren argi-izpiek gailentzen zizkioten orezta txikiak berriro ere ikusteko beharra.

Bai, Sinuek ondo baino hobeto ezagutzen nau.

Datorren astelehenean hasiko naiz erradioterapiako lehenengo saioarekin. Hogei saio tokatzen zaizkit niri, hau da, astelehenetik ostiralera egunero joan beharko dut ospitalera ordu berean, eta bularraren inguruan egin zizkidaten hiru tatuaje-markak erreferentziatzat hartuz emango didate tratamendua.

Zer moduz doaz tratamenduko lehen saioak, Laura? irakurri dut Sararen mezua, zazpigarren tratamendutik irten ostean. Sara oraindik ez da kimioterapiarekin hasi, bere gorputz-adarreko ebakuntzaren sendatze-prozesua nirea baino garratzagoa baita. Gurasoek lanean jarraitu behar dute, nire tratamendu, mediku, ebakuntza eta gastu guztiak ordaintzekotan. Eta lehenengo tratamendu-egunean amak etortzeko aukera lortu bazuen ere, gainerako egunetan neuk bakarrik joan behar izan dut. Ez diot Sinueri deus ere esan, bai bainekien sasieskola egiteko gauza dela. Sarari, aldiz, hain egoera lakarra bakarrik igaro behar izana zein den gogorra azaldu diot. Eta datozen saio guztietan nirekin gongo dela zin egin dit. Ezin dut sinetsi. Begiko dudala esan

genezakeen neska nire bizitzako unerik erabakigarrietako baten parte izango da.

Tratamenduko hirugarren astea da jada. Arestion beztitu dut erradiazioa hartzeko erantzi behar izan dudan soinekoa, eta Sara igurikitzen aritu zaidan itxaron-gelara zuzendu naiz. X izpiak igortzen dizkidan aparatu erraldoi baten azpian egon naiz bost bat minutuz, aurreko egun guztietan modura. Lehenagoko saioretan ez bezala, ordea, oraingoan bularralde osoak erretzen zidan, eguzki-izpien pean ordu luzeak igaro ondoren kiskali izan banintz bezala. Onkologiarako berariazkoa den krema bat egunean hirutan ematen dudan arren, larruzala erabat gorriturik daukat. Ura edatean eztarrian atzamar egingo balidate bezala nabari dut, eta zer esanik ez jatean; minutu pare bat igaro ostean ez naiz zutik geratzeko gai ere, eta arnasestua ohetik jaiki baino lehenago ailegatzen zait.

Trenera igo, eta etxeraino lagundu dit Sarak, bidean ezustekoren bat gertatuz gero bakarrik egon ez nadin. Jendez leporaino beteta dagoenez, Sara zutik joatera tematu da. Niri, ordea, entzungailuak jarrita daramatzen gazteak eserlekua libre utzi dit, hain gaztea den neska batek bular bakarra eta ilerik ez duela ohartu denean. Erortzen hasi aurretik larru-arras moztea erabaki nuen, xerloak banan-banan jaus-ten hasi aurretik. Eguerdia da, eta institutuetatik irten berri diren ikasleak geltokiz geltoki beheratzen ari dira, eta eza-gutu nuenetik nire pentsamenduetatik ilki ezin den neska eta biok bakarrik geratu gara, azken geltokira iritsi zain.

Beiraketik begiratzen ari da, ikusten duena inoiz izan den paisaiarik sotilena izango bailitzan...

Begirada mirespenez so egiten dion paisaiatik aldendu, eta etsi-etsian behatzen dudan neskak in fraganti harrapatu

nau. Bizkarrean eskegita duen bizkar-zorrotik paper politez bilduta dagoen opari bat luzatu dit.

–Ireki ezazu etxera iristean –izan da eman didan azalpen bakarra. Azken geltokian jaitsi gara biok, eta etxadi pare bat aurrerago dagoen nire etxearen parean geratu. Eskerrak eman dizkiot berriro ere. Baina gaurko agurra ez da aurreko egunetakoa bezalakoa izango, tentsioa nabaria baita airean. Aurrez aurre dauden bi neska gazteon ezpainen bat egiten amaitu dute, aspaldidanik elkarren beharra izango bagenu bezala. Egun gutxi atzera ezagututako bi gizabanako bakar batean bilakaturik, askatu nahi ez dituzten eskuak loturik. Sarak irri ttipi bat egin, eta besterik gabe alde egin du. Atakaren alboan geratu naiz, zutik, deus egin barik, irribarrea ahoan marraztuta dudala. Etxera sartu, eta ospitale-usaina duten arropak erantzi aurretik oparia ireki dut irrikaz. AN-TOINE DE SAINT-EXUPÉRY, *Le Petit Prince*. Sinesgaitz, lehen orrira iritsi naiz. Eta emoziozko malko txiki bi isurtzen ditudan bitartean, Sarak idatzitako mezu laburra irakurri dut, behin eta berriz:

*Badut lore bat...
nire unibertsoan bakarra dena...
izan ere, nire arrosa baita.*

Behin eta berriz irakurtzen ditudan hitzok beren zentzua galtzen dute apurka...

Bip- Bip- Bip...

Mare Mortum

Miren Agirregomezkorta Iza
Santo Tomas Lizeoa
Donostia

Lehen txotxongiloa ateratzen dudan mementoa, hori da emanaldiko unerik politena. Haur horien guztien aurpegiak ikustea, ilusioa begietan marraztua dutelarik, koloretako panpinak bezala. Bakoitzak bere istorioa kontatzen dit, nik nirea hasi ere egin baino lehen. Horko neska begi urdinak, akaso, bere lehen ipuina idatzi du oraintxe. Mutiko hori, ordea, neba bihurtu da agian azken hilabetean. Edo besterik gabe, haurtxo horren irribarrea lortu duena jostailu berri bat edo aitaren txantxa izan daiteke. Nork daki!

Gutako bakoitzak hamaika istorio dauzka kontatzeko. Batzuen nahiko garbia eta leuna da; beste batzuen, aldiz, zurrunbiloz eta abenturaz josia dago. Bizi izan zaren urte kopuruak ere badauka zerikusirik... Nire pareko haur hauek guztiak oso errazak dira irakurtzeko, nire txotxongiloen ipuinak bezala. Nireak... ez horrenbeste. Baina edonola ere, gutako bakoitzaren istorioa, denona, da kontatzeko modukoa.

Horregatik egin nintzen txerpolari, eta txotxongilo-emanaldiak eskaintzen ditut porlanezko kale luzeetan. Beno, horregatik eta lan honetan ezin nindutelako kaleratu... Gainera, egurrezko puskatxo bati bizia eman niezaiokeen, nire istorioetako batzuk berari pasa, eta kolore politez margotu, bai panpina eta bai ipuina, jendeari irribarre bat ateratzeko asmoz. Ideia polita, ezta?

Gaurko nire emanaldiak ezin hobeto irudikatzen du goiko asmo hori: nire istorio-bildumako pasarterik latzena aukeratu dut, eta txotxongiloa sortzeko material astun eta hotza erabili dut aldi berean: beruna. Haurrek, ordea, beraien ipuin koloretsuaz gozatu nahi dute... Hor noa beraz...

“Jaun-andreok, Khaled Alman dut izena, eta Berunezko Soldadutxoa obra antzeztuko dizuet gaurkoan! Mesedez, gozatu”.

Lehen eszenan, soldadutxoa bere etxe berrira iristen da. Nire irudimenak lan bikaina egin zuen antzezlaneko une honetarako; izan ere, inguruan daukadan kale zatitxoa etxe bat bailitzan apaindu dut, eta ikusle bakoitzari

soldadutxoarena bezalakoa den kapela bat eskaini diot hasi baino lehen, guztiok soldadu bilakatuz. Ai, inozoak, jakingo balute... Kapela merkea da, gainera: egunkari orri bat tolestuz lortzen den horietakoa. Ikuslea lehen eszenan, lehen paragrafoan, lehen ikusian harrapatu behar dela esan izan da beti, ezta? Ongi ba, lortu dut: jendea isilik dago, adi, erne. Kaleko zarata ere zain dagoela dirudi, itsasoa besterik ez da entzuten urrutian. Sokei tiraka-tiraka ekin diot nire ekitaldia kontatzeari:

–Non ote nago?- galdetzen du soldadutxoak– Nora ekarri gaituzte?

Bat-batean musika doinu bat entzun eta egurrezko mutiko ile hori bat agertzen da oholtza gainean, koloretako paperez bildutako kaxa bat eskuetan duelarik.

–Aupa! –oihukatu du– Mila esker, ama! Berunezko soldadutxoak dira!

Eta mordoa gainera, bat, bi, hiru, lau... Hogeita bost, alajaina!

Txotxongilo ile horiak kontu handiz atera ditu bere jostailu berriak fardetik, banaka-banaka. Hauek, noski, ez dira obran zehar erabiliko ditudanak, txikiagoak eta sinpleagoak dira. Ezinezkoa litzateke denak xehetasun eta pazientzia berberaz egitea, eta kaleko martxarekin segituan hondatuko lirateke, gainera, baina, edonola ere, bakoitzak bere ezaugarri propioa du: koloretako arropa, txanoko luma, zapatata galdua...

–Zeinen ederrak diren! –egin du oihu jende arteko neskatxa txiki batek.

Lerdenak dira, bai, nire panpinak. Ondotxo dakit errealitateko armadetan soldadu guztiak berdin jantzita doazela, talde bat direla eta ez banakakoak. Ezaugarriarik ez, berezitasunik ez. Guda zelaietan, pertsona bakoitza nortasunik gabeko txotxongilo hutsal bihurtzen da, beste norbaiten agindupean mugituko da beti. Errealitatean hau horrelaxe gertatuko da, ados, baina nire emanaldian txotxongilo bakoitzak bere bereizgarria dauka, bakoitzak bere istorioa kontatzeko aukera izan dezan. Bakoitzak bere izena eta izaera merezi dituelako.

Bitartean, kontakizuneko mutikoa, hemendik aurrera Ali izenez deituko dudana, pozez zorutzen ari da. Lagunekin bere oparia aztertzen dabil:

–Hara, zeinen polita den hau! Samer deituko zaitut! Eta zeinen kapusai ederra zurea, laranja... Lara, hortxe zure izena! Zuk, ordea,... bihurri samarra dirudizu, ezta?, bai, Xomorro izango zara. Aupa!

Soldadutxo guztiak atera ditu jada Alik kutxatik; guztiak, bat izan ezik. 25. soldadutxoak ere badu ezaugarri propio bat, baina kasu honetan ez da koloretako jantzi polit bat edo aurpegi borobil bat. Ez, azken soldadutxoari hanka bat falta zaio:

–Hara! –ohartu da Aliren lagutxo bat– Hau herrena da! Agian beruna bukatuko zitzaien...

–Bai, hau ez da besteak bezain polita... –bota du beste txotxongilo batek– Hau itsusia da... Utz ezazu txoko batean eta erabili besteak!

Soldadutxo batzuk ez dira besteak bezain politak, eta batzuetan ez daukate behar besteko aukerarik, eta laguntzarik, eta... Soldadutxo horiek ez dute balio, ezta? Soldadutxo horiek ez daukagu izenik, txoko batean gaude, itzalpean. Ez gaituzte ikusten.

Nire etxea datorkit orain burura, nire benetako etxea. Eraikin xume batean bizi nintzen, pareta zuridun pisu umil batean. Ez zen gauza handirik, baina pozik egoteko aukera neukan bertan, Linarekin, nire bihotzeko maitearekin, eta Mazen txikiarekin. Hirurok batera, familiatxo polita osatzen genuen. Baina noski, ez zen dena horren erraza. Hainbeste gatazka gure inguruan, hainbeste interes jokoan, hainbeste perrexil saltsaren erdian... Eta herritarrok bitartean ikuslego soila bezala, zain, oreka hautsi arte. Ez daukagu izenik...

Honezkero ez zait erraza egiten antzerkiaren ildo jarraitzea, halako zurrunbiloa baitaukat buruan jira-biraka. Baina nire pareko haurrak begira dauzkat, ilusioz beteriko irribarre bat aurpegian dutelarik. Ala, goxoki bat al da akaso?

Istorioa kontatzeari ekin diot berriz ere: Ali eta bere lagunak soldadutxoarekin zer egin pentsatzen ari dira:

–Bota egingo al dugu? Ez du ezertarako balio, ez du merezi... –dio batek.

–Ez dakit, –erantzun dio Alik– pena ematen dit gizajoak. Beste zerbaite bururatzen al zaizue?

Hiru txotxongiloak pentsakor geratu dira. Zorte pixka batekin haurrak ez ziren nire akatsaz ohartuko; izan ere, buru barneko iskanbila dela eta, panpin bakoitzari bere ahotza jartzea ahaztu zait... Alik eta lagunak berdin hitz egin dute beraz. Disimulatu, Khaled, disimulatu!

–Badakit! –esan du bat-batean hirugarren txotxongiloak ahots arinez– Zergatik ez dugu soldadutxo marinela bilakatzeko?

Publikoko aurpegi guztiak begira dauzkat, batzuk espaloian eseri dira dagoeneko. Ongi, gustatzen ari zaie.

–Bai! Paperezko txalupa batean sar genezake eta itsasoan askatu, lur berriak ezagutu ditzan!

Esan eta egin. Egunkari paperez egindako txalupa bat atera dut bizkar atzetik, hurrek buruan daukatena bezalako. Obraren hasieran soldadutxoaren txano zena, yate dotore bihurtu da orain, haurren irudimenean behintzat. Kaleko antzezlanetan originaltasunean dago gakoa! Denak beraien txalupatxo hauskorrekin jolasean dabilta, ontzitxo ahulekin; laster urratu eta hondatuko dira... Papezkoa da. Nik itsaso beltzaren mugan hartu nuena bezalako.

–Tira ba, Ali! –esan dio txotxongilo batek– Sar ezazu soldadutxoa behingoz eta jaurti dezagun kale bazterreko ur errekatxoan!

Berunezko soldadutxoak bere anai-arrebei begiratu die orain. “Agur... itzuliko naiz, noizbait...”, dio. Nik ez nuen zorte hori izan. Mare Mortum-eko uretan sartzea erabaki nuenerako, itxaropen eta gogo gutxi nuen etxera itzultzeko.

Izatez, etxerik ere ez geneukan ordurako... Iskina atzeko txokoetan bizi ginen, uzkurtuta eta beldurtuta. Ez zen batere samurra... Eta okerrena, ezin nien ezer hoberik eskaini Linari eta Mazeni, gure seme txikiari. Borroka-hotsak entzuten genituen gauero...

Oharkabean, isilik eta geldirik geratu naiz une batez, egunkarizko txalupa eta berunezko txotxongiloa eskuetan ditudala; baina, segituan, istorioaren haria hartu dut berriro. Soldadutxoa estolderia sareko ur zikinetan barrena doa abiadura bizian, zurrunbiloen artetik, olatu eta lata zaharrak saihestu nahian.

Halako batean, beste txotxongilo bat sartu dut antzezlanen: arratoi zahar eta itsusi bat. Ikuslegoko hurrek nazka-keinu bat egin dute; hori ona da, beraien arreta berreskuratu dudala esan nahi baitu. Honezkero, bati baino gehiagori hoztuko zitzaion ipurdia, kaleko zoru hotzean eserita...

–Nor dabil hor!? –galdetu du arratoiak ahots latz eta ozenez– Nor dabil hor? Zatoz hona, alproja hori!

Berunezko soldadutxoa beldurtua dago; normala da. Abiada bizian hurbiltzen ari da animalia maltzurragana, urak bere txalupa balantzaka astintzen duen bitartean.

–Pasaporte! Non daukazu pasaporte! –oihukatu dio arratoiak panpin ikaratuari– Ez ezazu ihes egin! Zeure lurrera itzuli behar duzu!

Baina soldadutxoak, gizajoa, ez dauka erantzuteko aukerarik, urak ez dio geratzen uzten. Olatuak gero eta altuagoak dira, ez nuen Europako lurra inon ere ikusten. Lina eta Mazeni gogor eutsi nien; ez ginen, ez, banatuko. Ordura arte lortu nuen guztia eta bizitzeko falta zitzaiguna defendatuko nituen, kosta lain kosta. Itsasoa, ordea, iluna zen, beltza eta arrotza. Bai, beldur nintzen. Itxaropen berri baten ametsa bete nahi nuen, liskarrik ez zegoen mundu bat ezagutu nahi nuen. Mediterranea gurutzatzea zen gakoa.

Olatuak berriz, geroz eta altuagoak, bortitzagoak ziren, bai soldadutxoarentzat eta bai niretzat, 26. soldatxutxoarentzat, eta paperezko txalupak ez zuten askotarako balio izan. Ontzia irauli eta uretara erori ginen, eta zoritxarreko une batean, metalezko tramankulu baten kontra kolpatu nuen burua. Gogoratzen dudan azken irudia Lina eta Mazen dira. “Aurki iezaguzu bizitzeko toki seguru bat”, erregutu nion begiradarekin nire emazteari. Gero, konortea galdu nuen.

Soldadutxoa ordea, arrain handi batek irentsi zuen.

Haurrak nahiko beldurtuta daudela dirudi, gaixoak eta helduak ere ohartzen hasi dira ipuin inozo honek ezkututzen duenez. Batzuek kezka eta tristura igortzen didate.

Burura datorkidan hurrengo oroitzapena, inoiz bizi izan dudan gogorrenetakoa da. Kontinente Zaharreko lurrera iritsi nintzen azkenean, itsaso zabala gurutzatu eta gero, portu seguru batera. Larrialdi zerbitzuek buruko zauria sendatu zidaten eta manta lodiak eman zizkidaten berotzeko.

Zelako zortea, pentsatuko duzue. Ba ez. Inoiz ez naiz nire bizitza osoan okerrago sentitu. Larridura izugarritz Mazen eta Lina bilatu nituen jendartean. Ni zaintzen ari zen erizainari ere galdetu nion, eta bazter guztiak arakatu nituen. Deus ere ez. Ez zidaten baiezkorik ez ezezkorik eman. Ziur nekien bakarra zen ez zirela nire portu berera iritsi. Sentipen lazgarria zen; ez nekien nire bizitzako bi pertsonarik garrantzitsuenak bizirik zeuden... Mare Mortum.

Soldadutxoak, zorionez, patu hobea izan du: esan dudanez, arrain handi batek irentsi du (jendeari “oh!” garrasi eginaraziz), eta segituan arrantzale baketsu batek harrapatu du. Arrain garesti eta galanta da, dio pozez gizonak, eta merkatura abiatu da bertan saltzeko asmoz. Etxeko gizon gizen bat hurbildu zaio arrantzale onari:

–Barkatu jauna, zenbat eskatzen duzu arrain honengatik?

–8 € eman eta zeurea da!

–Ederki ba, nire seme Aliri prestatuko diot gaur afaltzeko...

Pentsa dezakezue zer datorren jarraian, ezta? Bai, bizitzako kasualitateak medio, Aliren aitak erosi du arraina. A ze sorpresa mutikoak jaso duena bere afariko jaki eta barazki artean munduan zehar bidaiatzera bidali zuen soldadutxoa aurkitzean! Haur guztiak pozez txaloka ari dira orain. Gure berunezko laguna zoriontsu dago, bere anai-arrebekin elkartzea lortu du azkenean. Eta etxera itzuli da, onik.

Jendeak txalo zaparrada eskaini dit, eta ume guztiak irribarre bat dute ezpainetan. Horrek ni alaitu nau. Baten batek hainbat txanpon ere bota dizkit lurrean utzi dudakaxatxoan...

Oraindik ere ez dakit non dauden Lina eta Mazen, ez dakit ondo bizi diren, nire bila dabilzan, edota inoiz berriz ere elkar ikusiko dugun. Bitartean, nire inguruan ditudan hurrei eskaintzen diet nire denbora eta lana, hazten ikusten eta maitatzen ditut, ia nire seme-alabak balira bezala. Izan ere, gutako bakoitzak hamaika istorio dauzka kontatzeko, eta hauek txotxongilo antzerki bilakatuz, kaleko pertsona ezezagun bati irribarre bat ateratzen badiot, merezi du, merezi du horretan jarraitzea.

Urteak dira nire emaztea eta semea azkenekoz ikusi nintuenetik, baina lehen egunean bezainbeste maite ditut, eta oraindik ere aurkitzeko itxaropen apur bat geratzen zait. Urteak igaro dira Linari begietara begiratu eta erregu mutu hura egin nionetik: “aurki iezaguzu bizitzeko toki seguru bat”, eraman nazazu etxera berunezko soldadutxoekin jolastera. Orain, itsaso zabal honi begiratu eta eskari berbera egiten dut egunero.

Eta zuk, irakurle maite hori, lagun iezaguzu mesedez izenik gabeko soldadutxo hauei guztiei, eta trukean txerpolari xume honen irribarrerik zintzoena jasoko duzu.

Itsasbehera

Ainara Iraragorri Herrera
Lauaxeta Ikastola
Amorebieta-Etxano

Enara bakarti baten hegaldiak jakinarazi dit udaberriaren itzuleraz, itsas brisa leun baten besarkadak ileak nahasi eta gordeta nituen bihotzaren azken errautsak eraman ditu. Sortaldeko haizearekin bidaian bizipenak, maitasunaren azken aztarnak.

Entzuten dut olatuen soinua urrutian, sumatzen dut itsaso gaziaren zaporea ezpainetan. Eta hala ere ez dut inoiz itsasoa ikusi, urrundu egiten da nigandik, ikaratu egingo banu bezala.

Amak behin esan zidan poetak eta hiltzorian dauden pertsonak soilik joaten direla itsasora, hark kontaktzen dituen istorioak entzutera. Idazleek bertatik idazten omen dituzte herriko liburutegira heltzen diren olerkiak, ur basatien kontakizunetatik.

Zirraraz betetzen ninduen Joxek (liburuzainak), itsasotik heldutako liburu baten berri ematen zidan bakoitzean, jaka jantzi eta korrika batean abiatzen nintzen liburutegira, itsasoak oraingo honetan zer kotatuko zidanaren esperoan. Buzia orrialdeetatik altxatu gabe ematen nituen hurrengo egunak, irakurketan murgildurik. Poetak dira, bai, itsasoaren eta herritarren arteko bitartekariak.

Behin ametsetan egin nuen topo itsasoarekin, gazteagoa nintzanean, bizipen gutxiagoko neska. Heriotza gertu nuela iruditu zitzaidan eta negar batean itzartu nintzen gauerdian, malkotan blai mihisea. Ama hurbildu zitzaidan larrituta eta, gertatutakoa kontatutakoan, irribarre egin eta ilea laztandu zidan emeki. Hitz gozoz esan zidan ez larritzeko, heriotzak ez ninduela eramango eta ni poeta izango nintzela, horregatik egin nuela amets itsasoarekin. Baina ez. Ni ez naiz poeta.

Amets hark nahasirik utzi ninduen guztiz eta luze pentsatu nuen haren inguruan. Mikelek arraro sumatu ninduen eta gertatutakoa kontatu nion. Lagun ona da Mikel, hala ere, bistakoa da berak niganako dituen sentimenduak adiskidetasuna baino harago doazela. Maitasun erromantikoa ez da nire gauza, ez da inoiz izan eta deseroso sentiarazten nau. Mikelek badaki hori, eta horregatik da laguna. Laguna eta ez beste ezer.

Gaur, berriz ere, egun hartan esan zizkidan hitzak etorri zaizkit gogora. Behin esan zidan ametsak ez zirela kasualitatearen kontuak. Ametsak entzun nahi ez ditugun egiak xuxurlatzen dizkigu, errealitateak ulertzen ez dituen istorioak eta gure arrazionaltasunetik ihes egiten duten gertae-rak. Gaur egungo pertsonak garuna mugaturik dutela zioen, eta ulertzen ez dituzten gauza denak baztertzen dituztela. Beldurratik. Dena jakin ezinaren beldurra. Eta beldurrari aurrez aurre begiratu behar zaiola. Min eman arren, malkoek aurpegia erretzen badizute ere. Aurrez aurre. Begiraden arteko guda.

“Gure beldurren ispilua dira ametsak”.

Bere hitzek zer pentsatu handiak eman zizkidaten, hala ere bizkarrari eragin nion neguaren amaierarekin hegan

bidali nituen errautsak gogora etortzen zitzaizkidan bitartean. Ez, ez nintzen itsasoaren beldur. Ni pertsonak ikaratzeko ninduten. Ez nuen inoren hutsunea sentitu nahi, ezta inor faltan bota ere. Itsasoa izan nahi nuen. Menderaezina. Askea. Ederra. Ausarta. Nirea. Ez beste inorena. Nirea, beti.

Harrezkero askotan egin dut amets itsasoarekin. Berriketan ibiltzen ginen, inoiz izandako elkarrizketa ederrenetan. Ez dut oroitzen zeren inguruan mintzatzen ginen, agian ez genuen hitz bat ere ahoskatzen. Baina olatuen artean seguru sentitzen nintzen, gatibutasun miresgarriean aske.

Gaur egun ere, askotan aitarengatik galdetzen diot, itsasoak irentsi zuen aita duela urte batzuk. Oraindik gogoan ditut amaren negarrak, gauero, loezinaren konpainian entzuten nituenak. Alde egin zuen egunean sabelean sortu zitzaizdan hutsune bete ezina ez da desagertu, nirekin daramat noranahi noala. Inoiz ez nuen ulertu zergatik izan zuen aitak itsasoa ikusteko horrenbesteko presa, zergatik utzi gintuen ama eta biok bakarrik.

Duela pare bat udaberri joan zen aita eta ordutik aurrera negu gorri amaiezin batean barrera ibili naiz. Neguko elurrak hoztu dizkit erraiak eta izoztu zaizkit malkoak, baina enararen hegakada bakoitzean hurbilago sentitzen dut udaberria eta sortarazi dit halako emozio bat. Bai, udaberriak badu bere xarma.

Urteak pasatu dira azken aldiz eguzkia leihotik sartzen ikusi nuenetik eta aspaldiko partez egun-argiarekin ekingo diot atzo liburutegian hartutako liburuari. Maitasun istorio sutua dut esku artean, bi gazteen arteko sentimendu zurrumbiloa, tximeleta kontrolaezinak.

Leihoa irekita dudala, itsasoaren soinuak inguratu egiten nau, gorputza lasaitasun sakonenean bilduz. Olatuek ibilbide luzea egiten dute itsasertzean apurtzera heldu arte. Itsas-behera. Irribarre egiten dut nire baitan. Joxek dioenez, poetek hobeto idazten dute itsasbeherako ilunabarretan eta hiltzear dauden pertsonak ere gehiago disfrutatzen dute mareabehera, hondartza zabalagoa baita eta azken paseoa ederragoa.

Maitasunezko istorioak itsasgoraren kontuak dira, horixe kontatu zidan Joxek. Itsas-zurrunbiloak dauden gauetan idazten direnekoak. Inoiz ez dut ulertu, nola dakien Joxek horrenbeste itsasoaren inguruan, baina kontaktzen zidana gustuko dudanez, ez diot inoiz galdetu.

Une batez irakurketa bertan behera utzi eta aita imajinatzen dut. Isiltasunean. Pertsona bakartia zen aita, bakardarearen konpainia gustukoa zuen oso. Imajinatzen dut kaoiak inguruan hegaka dituela, inoiz ikusi dudana zeru urdinenean. Oinutsik. Oinatzak harea umelean uzten dituela, ur gazia orkatiletatik. Nola edo hala, badakit entzuten ari dela, irribarre egiten duelako.

Ez nintzen horrelakoak egiten zituen horietakoa

Helena Gorroño Marsal
Lauaxeta Ikastola
Amorebieta-Etxano

Egongelako sofán etzanda nengoela, ezkerreko eskua praktetan sartuta, eta eskumakoan telebistako kontrola nuela, jo zuen ateko txirrinak. Kostata, lekutik altxatu, eta lurrean nintuen guztiak ostikatuz edo itzuriz ailegatu nintzen atera. Ezkerreko eskua praktetan barrena nuen oraindik. Atea ireki bezain pronto akordatu nintzen amak aspaldi esaten ohi zizkidan hitz horietaz “Ez iezaiezu ezezagunei etxeko atea ireki”.

«Baziren urteak amarekin hitz egiten ez nuela, eta ez zen hura izango amaren aholkuei kasu egiteko momentua. Egia esan, amak eta biok geneukan harremana ez zen hitz egiten den horietakoa. Berak bai, berak beti berba. Nik, ordea, buruaz baietz egin, eta txintik ere ez nion esaten. Ez nintzen berba egiten zuen horietakoa».

Beste egun guztietan ez ezik, egun hartan ere nire pisuko atearen kirrinkak ez ninduen ustekabeen harrapatu, eta behatxulotik begiratu ere egin gabe, kisketa kendu, heldulekutik gorantza tiratu, eta niregana tirakada suabe baina sendo batez atea ireki nuen.

«Gogoan dut pisua alokatu nuen eguna. Jabeak, nik bezala, esfortzu gehiegiz ireki behar izan zuen atea; “apurtuta al dago?” galdetu nion nik, “bisagren kontua da; lasai, ohituko zara” erantzun zidan hark. Bigarren asterako ohitu

nintzen, eta jada era mekanikoan egiten nuen etxetik sartu eta irteteko erritual antzeko hura kexatu ere egin gabe. Ez nintzen kexatzen zen horietakoa».

Nire ezustekorako, jada ez zegoen inor atearen bestaldean. Ez ninduen harritu, urte asko ziren ezerk harritzen ez ninduenetik; halere, behintzat kurioa iruditu zitzaidan. Altxatu nintzen espresio eza berberaz bueltatu nintzen “nire txokora”. Sofan eserita botatzen nituen orduak, eta egunak... azken aldian asteak ere baneramatzan ipurdia bertatik altxatu gabe, janari azkarrari atea irekitzeko izan ezik.

«“Lodiegia zaude” “Ez ezazu horrelakorik jan”. Nerabearoan ez zidaten janari azkarrak jaten uzten. Lodi egongo banintz, inork ez ninduela maitatuko esaten zidaten. Bardin zitzaidan. Ez nintzen maitatua izan nahi zuen horietakoa».

Ordu erdi neraman telebista itzaliari begira. Ezkerreko eskua praketan neraman berriz ere, eta bestean garagardoa. Garagardoaren zapora mingotsa ez zitzaidan batere gustatzen. Edo bai. Uste dut inoiz ere ez nuela “garagardo ona” probatu. Halere, nola edo hala, hura edatera behartuta nengoela sentitzen nuen beti; nire patua balitz bezala.

* * *

Telefonoak jo zuen bat-batean. Hura bai ustekabea! Inoiz ez zidaten telefonoz deitzen. Inoiz ez. Halere, ez nintzen altxatu, telefono hots ziztrin hura bakarrik bukatuko zen desioz. Orduantxe gogoratu nuen: etxeko telefonoa deskonektatuta izaten nuen beti, inork eragotzi ez ziezadan. Zer-gatik demontre ari ote zen telefonoa jotzen orduan? Momentu labur batez larritu egin nintzen, baina ez ziren segundo asko pasatu garagardoa berriz ere ezpainera hurbildu nuen arte.

«Aitarekin nengoen lehen aldiz garagardoa probatu nuen; nire 14. urtebetetzea zen, eta aitak horrenbeste akuilatu zidan, ezin izan niola ezetzik esan. Lehen zurrupada hark eragin zion aitari berriz ikusi ez dudan irrifarra... “zer? gustuko?” baietz esan nion, nahiz eta garagardo hark eragin zizkidan hotzikarak inoiz sentitu ditudan desatseginenak izan. Aita gustuko nuen, ama ez bezala -eta amak ez bezala-. Ez zuen berba handirik egiten -ezta nik ere-, eta horrek, nolabait, eroso sentiarazten ninduen, ez baitzidan inolako presiorik eragiten. 2008an hil zen aita. Negarrik ere ez nuen egin. Ni ez nintzen negar egiten zuen horietakoa».

Asteak neramatzan eguzkiaren arabera gidatzen. Kalea argi zegoenean, eguna zen; eta ilun zegoenean, aldiz, gaua. Horrela zenbatzen nituen egunak, eta horren arabera ondorioztatzen nuen bazkaltzeko edo afaltzeko ordua zen.

* * *

Sukaldeko txorrotaren tangaden soinura ohitu nintzen momentu berean jo zuen telefono ziztrin hark berriro. Hirugarren aldiz egun hartan. Altxatzea erabaki nuen, deiaren bestaldean zegoenari hamaika gauza esateko asmoz, baina telefona hartu bezain laster, deia bukatu egin zen. Amorruaren amorruz, telefona deskonektatu eta kaxoi batean sartu nuen. Dutxa bat hartzea erabaki nuen, nor demontre ote zen pentsatzen nenbilen bitartean. Lehenengoz atea, eta ondoren telefona... kasualitate gehiegi iruditu zitzaizkidan egun bakar baterako, egia esan.

* * *

Dutxako ura hotzegi zegoen gaurkoan. Inoiz baino hotzago. Kostata erantzi nuen txandal zikin hura, eta gutxinaka busti nituen, lehenik besoak, ondoren hankak, eta, azkenik,

garondoa eta aurpegia. Begiak itxi nituen, momentu batez uraren talka sentitzeko asmoz.

«Familia handi bateko txikiena nintzen ni, eta lehengusu nagusiek beti zirikatzen ninduten. Behin, dutxan nengoela, begiak itxita, nire lehengusu nagusiak komuneko atea ireki eta manpararen gainetik ur hotzez beteriko edalontzi bat bota zidan burutik. Harrezkero, ez nituen inoiz begiak ixten dutxatzen nenbilenean. Ez nintzen dutxan begiak zarratzen zituen horietakoa».

Begiak ireki nituen, eta komuneko argia itzalirik aurkitu nuen. Izutu egin nintzen, asko, eta ni ez nintzen erraz izutzen ziren horietakoa. Jarraian, eskuoihala hartu, honekin edonola estali eta xaboa guztiz garbitu gabe atera nintzen dutxatik.

“Nor dabil hor?”

Inork ez zuen erantzun. “Nor demontre dabil hor?”

Telefonoa berriro jotzen hasi zen. Nik neuk ordu batzuk lehenago deskonektatutako tramankulu ziztrin hura. Lasterka abiatu nintzen horrengana, egongelara. Oso haserre nengoen. Arduratuta, baina haserre. Eta nire oin bustiak komunetik atera eta korridoreko parket hotza ukitu bezain laster, labaindu eta lurrera erori nintzen.

«Amak beti esaten zidan etxetik ortozik ez ibiltzeko, arriskutsua izan zitekeela. “Egunen batean, irrist egin, eta burua apurtuko duzu” esaten zidan behin eta berriz. Ni ez nintzen amaren aholkuei jaramon handirik egiten zien horietakoa. Ezta labain egiten zuen horietakoa ere. Ez nintzen dutxan begiak zarratzen zituen horietakoa. Eta ez nintzen negar egiten zuen horietakoa».

Eta, halere, bertan nengoen, lurean etzanda, garondotik odoletan, begiak itxita, negarrez. Ez nintzen horrelakoak egiten zituen horietakoa. Edo bai.

Egun bi pasatu ziren pisuko jabeak aurkitu ninduen arte. Oraindik etzanda. Eskuoihala ia guztiz kenduta. Bost axola gizon hari nolakoa nintzen ni. Bost axola mundu guztiari. Eta egun hartatik aurrera, niri ere, bost axola nolakoa izan nintzen, berriz izango ez nintzela bainekien.

Ez

Ane Varela Etxeberria
La Salle Ikastetxea
Donostia

Txikitan hasi zen dena. Gela berean egon ginen ikasten, 16 urte bete genituen arte. Lagunak ginen, eta orduan ere suma zitekeen gure artean nolabaiteko erakarpena zegoela, oraindik izenik jarri ezin genion arren.

Gero gauzak aldatu egin ziren. Heldutasuna besarkatzearekin batera, zu neskekin ibiltzen hasi zinen. Ezer seioririk ez; ez zinen lotura estuak gustatzen zaizkion mutil mota. Baina, hala ere, nire bihotz gaztea minduta ibili zen pare bat urtez.

Eta ni ere beste erlazio batzuetan murgiltzen hasi nintzen. Hasieran konturatu ez, baina bistan zegoen nirekin ibiltzen ziren mutil guztiak zure parekoak zirela. Antzeko gustuak zituzten, edo izen bera, edota zerbaiti buruzko pentsamolde zehatz arraro hori. Eta ni maitemintzen ari nintzela pentsatzen nuen bakoitzean, hor agertzen zinen berriro, nire pentsamenduetan, iraganean aprobetxatu ez nituen aukera haiek faltan botatzen nituela.

Egia esan, ez nuen inoiz jakin zure iritzia. Zuk ere nire sentimendu berberak al zenituen, edo zuretzat guztia jokoak soilik al zen? 14 urte genituen garai hartan, egia al da musu emateko burua makurtu zenuela, edo nire irudimena soilik izan al zen? Ez dakit. Ez dut inoiz jakingo. Baina momentu

hartan, beti aipatzen diren tximeleta bihurriak sentitzen nituen urdailean.

Eta halako batean gertatu zen. Nire argia ikusi zenuen. Nire sentimenduak hauteman zenituen, eta egoeraz baliatzea erabaki zenuen. Ezer seriorik nahi ez, baina gure gurasoek beti ikusi izan zuten gure erlazioa begi onez, nire aurreko erlazioak baino askoz hobeto behintzat, eta horrek indarra eman zizun, dirudienez. Nire amarentzat ametsezko suhia zinen. Nire ahizpak ere gustuko zintuen.

Eta ilusioak egin nituen. Poliki-poliki umetan sentitzen hasi nintzen maitemin hura benetako amodio bilakatu zen. Zu, bitartean, berdin mantentzen zinen. Pare bat egun astean ikusten genuen elkar, hasieran; gero elkarrekin bizitzera joan ginen. Gaztaroko sua itzaltzerik nahi ez bagenu bezala egiten genuen amodioa, eta zoriontsu izan nintzen unibertsitateak irauan zuen urte haietan. Nola ez nintzen izango? Beti gustukoa izan nuen mutila nirea zen, nirea soilik, eta ni, harena.

Baina pertsona bakoitzaren bideak independenteak dira. Eta ni zutaz maiteminduta nengoen arren, inoiz sentitu izan dudan sentimendu bortitzena bizitzen ari nintzen arren, gehiago nahi nuen. Nire erlazio pertsonalak ez dira inoiz izan nire bizitzako alderdirik garrantzitsuenak. Eta beraz, elkarrengandik urruntzea akordatu genuen.

Erlazioa mantenduz. Beharbada zu artean ere maiteminduta zeunden, baina nork daki? Nire malkoak lehortu zenituen elkar agurtu genuenean, eta azken musu bat eman zenidan. Hurrengo bi asteetan oraindik senti nezakeen zure ezpainen sua.

Oporretan, asteburu bakan batean, ahal genuen bakoitzean ikusten genuen elkar. Baina nire bizitza profesionalaren

konplexutasunak asti gutxi uzten zidan noizean behin zure besoetara bueltatzeko. Zu ere etortzen zinen batzuetan, hegazkinak ezorduetan hartuz, eta nirekin gauak soilik igaroz etxera itzultzeko ordua iristen zen arte. Garai hartatik gogora ditzakedan gure oroipen bizienak sexuari dagozkionak dira. Beharrez betetakoa, eta elkarren hutsa sentitzeak sortzen zuen min goxoaz apaindua. Zenbat eta gehiago egon elkar ikusi gabe, orduan eta gartsuagoak ziren gure topaketak.

Baina momentu bat iritsi zen, non ni atzerrian geratzeko erabakia hartu nuen, eta zuk jaioterrian bizitzekoa. Eta betiko bananduta egongo ginela ulertzeak bihotza apurtu zidan. Mila zatitan. Zati horietako bakoitzak barrualdea zauritzen zidaten mutur zorrotzak zituen, eta, hori ekiditeko, gure erlazioa apurtzen saiatu nintzen. Berriro elkar ez ikusteko akordioa egin genuen. Elkarrekin ez hitz egitekoa, beste pertsona bat gure bizitzaren erdigunetzat jartzen genuen arte.

Denetatik entzun nuen zuri buruz. Guztiz suntsituta zeundela, drogetan hasi zinela, mila emakumerekin egin zenuela lo gure haustura eta gero. Ni, ordea, lasai nengoela zirudien. Nire bizitza profesionalarekin jarraitu nuen formaltasun osoz, eta ez nuen beste inorekin erlazio berezirik izan. Gauetan, zure laztanak senti nitzakeen nire azalean, zure suzko musuak nabaritzen nituen masailetan, eta batzuetan nahia hain zen handia non negarrez hasten nintzen nire libidoa asetzen nuen bitartean. Baina pixkanaka zure irudia alde batera uzten hasi nintzen. Zure irudia ahaztu ez, baina egoera gainditzeko gai izan nintzen. Eta orduan Igor ezagutu nuen.

Ez dakit noiz iritsi zen zure belarrietara, edo noiz erabaki zenuen nire bila etortzea. Dakidan bakarra da orain bihotza bi aldiz hautsi didazula. Behin, nahi gabe, egoerak behartuta. Bigarren aldian, nire bigarren amodioa hautsita.

Eta orain ez dakit ezta non nagoen ere. Gela ilun baten izkinan ezkutatuta, zure arnasketa entzuten dut lotan zauden bitartean. Gauean ikusi dezaket lehen zinen gizona. Aurpegia lasai duzu, tentsiorik gabe, minak sortutako zimurrik gabe. Baina esnatzen zarenean, paretaren aurka jartzen nauzunean, ez dut inondik ere ulertzen nola maitemindu nintzen zutaz.

–Nirea zara –diozu batzuetan, eta zein oker nengoen pentsatzeak tamalez betetzen nau. Zuk nigatik sentitu duzuna ez da inoiz maitasuna izan. Zuk sentitzen zenuena, oraindik sentitzen duzuna, jabetza da.

Gorputz osoa minduta daukat. Bai zure oraldi bortitzen-gatik, eta bai lur hotz gogorrean lo egiteagatik. Hala ere, argi daukat ez naizela zure ondoan ohean sartuko. Duintasuna-gatik bada ere.

Urrunean irrati edo telebista batetik datorren ahotsa entzuten da.

–The police are still investigating the case, while the main suspect, her most recent boyfriend, remains unaccounted for...

Malkoak agortu zaizkit. Lehen egunetan negar besterik ez nuen egiten hankak irekitzera behartzen ninduzunean, zenbat maite ninduzun esaten zenidanean. Baina orain taktikaz aldatu dut. Nik ere maite zaitudala esaten dut. Ez zenuen iraganean zuk gezur bera behin eta berriro errepikatu? Egunean zehar zure ametsa banintz bezala jokutzen dut, gauean zutaz aldentzen naiz ahal dudan guztia. Bizilagunen ahotsak entzuten saiatzen naiz, ni bilatzeari utzi dioten ala ez jakiteko. Oraingo, oraindik, ez naute hildakotzat jotzen. Baina benetan kezkatzen nauena ez da hori.

Egia esan, ezer gutxi dut kezkatzeko orain. Egin diezadakezun min guztia jada egin didazu. Bai fisikoki, ni bortxatzean, bai psikikoki, Igorren hilketa aitortu zenuenean. Momentu hartan garrasi egiteko gogoan nuen arren, zu urkatzeko gogoan nuen arren, irribarre egin nuen eta zure altzoan kokatu nintzen, zure aurpegi zikina laztanduz.

–Berdin dio. Dena dela, aspergarri samarra zen.

Baina ez da beti horrela izango. Zin dagizut mendekua izango dudala. Eta orain borroka egiteko beste arrazoi bat daukat nire sabelean.

Ez dakit zurea ala Igorrena den. Baina oraintxe bertan, inporta duen bakarra da nirea dela. Eta babesik ez duela. Oraindik ez zara konturatu, baina gutxi falta da nabari dezazun. Eta zer gertatuko da orduan? Bera ere irainduko duzu nahi duzuna egiten ez badu? Neska bada, bere ahuldadea leporatuko diozu, bere ama indarrrik gabe uzteagatik? Bortxatuko al duzu?

Mutila bada, zu bezala izaten irakatsiko al diozu?

Ezin dut baimendu. Ezin dut. Eta gorputza mindua dudan arren, nire eskuak dar-dar egiten duen arren, ez dut helduta dudan labana askatzen. Ez daukat beste erremediorik. Kendu didazun duintasuna eta askatasuna berreskuratzeko modu bakarra da. Nire umea babesteko modu bakarra.

Isil-isilik sartzan naiz ohean. Nire presentzia sumatzen duzu eta nigana hurbiltzen zara, gorputz bero kirasduna, alkoholaz eta izerdiaz zikindua. Bihotza taupaka daukat zoro egongo balitz bezala. Nire buruari heltzen diozu, nire ezpainenetan kosk egin, eta lo egiten jarraitzen duzu.

Zin dagizut oraingo honetan ez zarela esnatuko. Lehen aldian “ez” esan nizunean gorra egon zinelako.

Eta emakume bat, gizaki bat, horrela tratatu izanagatik barkamenik ez duzulako.

Agur, maitea. Aske izango naiz orain.

Aulki hutsak

Miren Echebarria Martinez
Lekeitio BHI
Lekeitio

Ganbara zaharreko atearen soinua entzutean ohartzen gara. Mozorroa janzteko ordua iritsi da. Ez dira inauteriak, ez. Atea zabaldu eta goraino hautsez estalita dauden kutxa zahar guztiak jaitsi. Ospatzeke dagoena jakin gabe, guztiok janzten ditugu arropa dotoreak, urteko tragedia guztiak ezkutatu nahian. Ezpainetako kolore gorrien azpian mintzen gaituena ezkutatu nahian. Maskara. Hilketak eta bortxaketak tarte. Bitartean gu diru-zorroak hutsitu nahian. Norbere ingurukoekin batera guztion bertsiorik hoberena erakutsi nahian.

Elurra, hotza, sudur gorriak, ohikoak ez diren argiak kaleetan eta etxeko mahaia inoiz baino pisu gehiagorekin. Egutegiari zazpi papertxo soilik geratzen zaizkio. Oporrak. Zergatik? Ez dakigu, baina zerbait ospatu ohi dugu beti, behintzat hori irakatsi digute. Urte osoan ikusi ez ditugunei zorion-mezuak bidali, irribarre faltsuak, gazteenen ilusio behartuak. Katamaloak tartean. Ez dugu ahazten. Urtarri-laren lean zenbatzaileak hutsean jartzeak ez dauka zentzurik. Azken urte hauetan 1.000 baino gehiago izan gara erasotuak. 1.000 baino gehiago. 1.000. Horrela, gauza guztiekin. Hamalau egunetan zehar jantzitako maskara honek ez du ezer estaltzen, aurpegiko irribarre behartuak gutxiago. Gabonak, esanahirik gabeko atsedenaldea. Ospakizunik merezi

ez duten oporrak. Kontsumoz beteta, faltsukeriaz eztanda egin beharrean.

Desberdintasun bortitzak begi bistan. Bakoitzak bere bertsiorik hoberena erakutsi nahi, eta bitartean asko eta asko minduta, kaleetan etzanda, negu gorriko egun hotz, heze hauek eguzkiak estaltzeko esperoan. Eguzki eskean. Askotan, sarritan, gehiegitan, oso maiz gaizki gabiltzala ohartzen gara, baina nehor ez da gai ezer aldatzeko. Guztiok zeken, nehor ez eskuzabal. Olentzero ez da Afrikatik pasatzen, baina guk ere Olentzero lanak egiteko intentziorik ez daukagu. Laguntzea, sekulako lana. Begiak norbere gorputzetik atera ezinik gabiltza. Gainontzekoak ongi ikusi nahi ditugu, baina inoiz ere ez gu baino hobeto. Guztiok diruzale, nehor ez burudun.

Mahaiak pisua hartu du, baina aurtan ere ez dira aulki guztiak bete. Eserleku batzuk hotz gelditu dira. Bi, zehazki. Aitarena eta ahizpa nagusiarena. Aneren aitaren azken urtea izan da. Bihotza minduta, hutsik dago, horrelako otordu bat aitarekin partekatu ezinagatik. Ez dago atzera bueltatzerik eta afariko kalitatezko urdaiazpikoa irentsi bitartean aitarekin bizi izandako oroitzapen guztiak gogoratzen ditu, bana-ka-banaka; hondartzako egun beroak, elkarrenganako irribarreak, malkoak, besarkada luzeak, gurutzatutako begiradak... Gaur aita utzitako soineko berdea besterik ez dauka, oraindik bere usainaren arrastoak ditu. Egunero sumatzen du aitaren falta, amorrua sentitzen du bere pareko aulkia nehork ez duela berotzen ikustean. Aita, non zaude?

Mahaiaren pisua gutxituz doa, orduak ere badoaz aurrera. Tik-tak. Anek bere aulkia hutsik utzi eta leihotik begiratzen ari da. Geruza zuri batek estaltzen du kanpkoa, behegainean ikus ditzakegun aztarnak kenduta, gainerakoa

aitaren ilearen kolorekoa da. Zuriz kaleak, baina zurikeria inguruan. Eliza azpiko aterpeari so egitean ohartzen da badirela egunak kalean igaro behar dituztenak ere. Barruko eta kanpoko desberdintasun bortitzekin ohartu da Ane. Etxean soberan dagoen janari dena ikusi du, ama guztia ikuzten ari den bitartean. Izebak oparitutakoaren plastiko-txoan janaria batu eta eskailerak behera abiatu da.

Eskaleen begiak ia lekuetatik irten dira. Distiraz beteta daude. Malkoak beraien aurpegian behera doaz masailetako zikinkeria garbituz. Janaria eskaini, eta jarraian eskertu dute. Ez behin, ez birritan, hiru aldiz. Aneri eskerrik beroenak eman dizkiote. Anek etxerako bidea hartu du, begiak igurtziz. Ohartu da behartsuei laguntzen dienean bere begi-ninietako kolorea berreskuratzen doala. Apurka-apurka. Etxera igo eta leihoaren parean eseri da eskaleen zorion aurpegiei so eginez, eskuartean Iban Zalduaren *Ipuinak* liburua duela.

Ahizpa nagusiaren aulkia ere hutsik dago, hotzez dardarka. Ez du inork berotu gaurkoan. Ospitalean igaro behar izaten ditu gauak hurrengo urtean zurikeriaz betetako egunetan mahaiak pisua har dezan. Korridore zurien artean dago Kattalin, uniforme urdinez jantzita. Bere aulkia eta han daudenen aulki hutsak irudikatzen ari da. Badaki berea bihar berotuko duela, baina zer gertatzen da larri dauden guztiekin? Eta beraien urkoekin? Egun hauetan ez dago gaixotasunik? Guztiok osasuntsu?

Agian aulki horiek ez dira berriz beteko. Agian urtea hilerrian hasi beharko dugu. Agian beste izar bat piztuko da zeruan. Inork ez daki, baina gerta daiteke. Barneratutako zenbait ideia ezabatu beharra dago. Ane inguruan gertatzen denarekin ohartzen ari da. Gaur ere dutxatik irten da nega-

rrez eta dardarka, xaboiak ez ditu garbitzen azal barruko orbainak.

Egutegiak orri guztiak galdu ditu dagoeneko, haritzek udazkenean galdu zituzten antzera. Apaingarri guztiak kuxan gorde eta ganbararainoko eskailerak igo bitartean, aurpegiko irribarre faltsua desagertu da. Joan da. Ihes egin du. Lurrak eguzkiaren inguruan bira osoa ematean bueltatuko da berriz, nahiz eta soberan egon. Faltsua izaten jarraituko du. Guk hemen jarraituko dugu. Berdin, zurrun, hieratikotasunari eutsiz. Aurreko egun hauetan zer ospatu dugun galdetzen lotaratuko naiz, faltsukeria batean bizi garela pentsatuz. Egutegiak inoiz baino pisu gehiago duenean, urtean zehar beteko ez diren helburuak proposatuz. Begiak irekitzean errealitatearen preso ez garela izango sinistuz. Hegoak sentituz.

PROSA B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Malko bat itsaso zabalean

Iratxe Garmendia Eguzkitza
Jakintza Ikastola
Ordizia

Txirrina jo orduko, motxila bizkarrean hartuta ikasgelatik irten eta arrapaladan jaitsi ditut sarrerako eskailerak. Korrika jarraitu dut, institutua atzean utzi nahian; gaurko eguna atzean utzi nahian. Baina, hara nor ikusi dudan nire parean, auto zaharkitu baten aurrean nire zain: aita. Eta, nola ez! Haren ondoan, nor? Nasim, noski, aitaren lagun bereizezina. Egun osoa pasatzen dute elkarrekin; ez dut ulertzen, ez al dute beste inor ezagutzen? Disimuluz, haien aurretik pasatzen saiatu naiz; ezikusiarena egiten. Beranduegi da, ordea; aurpegian irribarre inozo bat marraztuta, eskuaz agurtu nau aitak. Hori gutxi ez balitz, orain niri deika hasi da. Ea! Egizu oihu altuago, baliteke beste puntan dagoen emakume hark ez entzun izana eta!

–Aita, ez al dizut esan mila bider ez dela beharrezkoa nire bila etortzea institutuko atera? 15 urte ditut jada; baka-
rrik joan naiteke etxera.

–Lasaitu zaitetz, Zaid. Ezer baino lehen Nasim agurtu beharko zenuke, ez zaitetz zakarra izan. Eta beste kontuari dagokionez, badakizu, gustura etortzen naiz zure bila, ez zait ezer kostatzen.

Barrutik, etorriko ez balira hobe izango litzatekeela pentsatu badut ere, ez dut ezer esan, nahiago izan dut eztabaida saihestea. Gogorik gabe, buruaz Nasim agurtu dut.

–Salam aleikum –esan diot lehor.

–Aleikum salam –erantzun dit berak irribarretsu.

Auto barrura sartu naiz orduan, eta nire atzean kolpe batez itxi dut atea. Dena den, aitak esandakoa entzuteko denbora eman dit.

–Ez iezaiozu kasurik egin, azken aldian petral xamar dabil.

–Lasai, normala da horrelako umore aldaketak izatea nerabezaroan.

Komentario horrek sutan jartzen nau beti. Edozer gauzagatik eztabaidatu ostean, helduek ateratzen duten ondorioa berdina da beti: nerabezaroko kontuak izango dira. Haserretzen banaiz zerbaitengatik izango da; nire arrazoiak izango ditut, demontre! Betilun egon naiz bidaia osoan zehar, etxera heldu garen arte. Autoa gelditu orduko, bizkor atera eta inori itxaron gabe etxera igo naiz. Nire gelan giltzapetu naiz, arratsalde osoan ateratzeko asmorik gabe.

Orduak aurrera egin ahala, ordea, tripak orro egiten hasi zaizkit; ez da harritzekoa! Egun osoa ezer jan eta edan gabe egon ostean, edonor egongo litzateke goseak. Ramadan marikatua... ez du batere zentzurik ohitura honek, ez dakit zergatik jarraitzen dugun. Musulman onak izateko? Hala bada, nik ez dut musulman izan nahi. Gaur ezin izan dut soinketa egin eta ikaskideek arraro begiratu didate. Aitak dio ezberdina izatea gauza ona dela, baina ni ez nago hain ziur.

Tripa zorriak berriro ere. Leihotik begiratu dut, oraindik eguzkia ez da ezkutatu, beste pixka bat itxaron beharko dut

afaltzeko ordua heldu arte. Gelatik irten eta liburutegirantz abiatu naiz. Ikastolako lanak egingo ditut. Ordenagailua piztu bitartean, begirada bat bota dut ingurura. Liburu pila daude, amarenak dira gehienak: itzultzailea da, eta batez ere, irakurle amorratua. Betidanik nahi izan du nigan ere irakurzaletasuna piztu, baina egia esan nahiago ditut bideo jokoak. Bat-batean liburu fin eta zaharkitu batek atentzioa deitu dit. Eskuartean hartu dut. Ez da liburu bat, koaderno bat baizik. Ireki, eta eskuz idatzita dagoela ohartu naiz. Badirudi nire adinekoa edo apur bat gazteagoa den nerabe batek idatzi duela. Arabieraz dago. Jakin minez, lehen orria ireki dut. “2012ko otsailaren 14a”. Duela 25 urtekoa da!

...

2012ko otsailaren 14a

Duela aste batzuk hasi zen dena; udaberriaren etorrerarekin batera. Ohi bezala, afaldu ostean, aitak ohera bidali ninduen, eta kexarik agertu gabe, berehala joan nintzen, izugarrizko logalea neukan-eta. Izaren azpian ezkutatu eta ondo tapatu nintzen; leher eginda nengoan: egun luzea izan zen hura. Dena den, aita etorri arte itxaron nuen, esfortzu handi bat eginez betazalak itxi ez zitezen. Gauero etortzen zitzaidan muxu bat eman eta lo gozoak opatzera, eta orduan ere, hala egin zuen. Egun hartan, ordea, ezberdina izan zen. Ez nuen inoiz aurretik aita gau hartan bezain kezkatu ikusi. Argia itzaltzera zihoala, hots burrunbatsu batek asaldatu gintuen biok. Salto batez ohetik jaiki eta leihorantz hurbildu nintzen, hots horren jatorria argitzeko asmotan. Ez nuen, ordea, gauza handirik ikusterik izan. Aita aurreratu eta handik bidali baininduen. Gortinak itxi eta berriro ere ohean sartzeko agindu zidan. Beldurtuta, txintik ere esan

gabe obeditu nion. Zer ote zen aita bere onetik ateratzea eragin zuen hura? Gure gaintetik pasatzen entzun nuen, eta pixkanaka urruntzen zihoala, geroz eta baxuago entzuten baitzen haren hotsa. Guztiz isildu zenean, aita ohe gainean eseri zitzaidan, eta jada lasaiago, bi muxu eman zizkidan maitekiro. “Lasai, ez zaitez kezkatu; ez da ezer izan”. Hitz horiek esan, eta gelatik irten zen argia itzalita utzita. Ez nintzen baina lasai gelditu. Gau hartan argi antzeman nuen aitaren aurpegian izua, eta hori ezin zitekeen inolaz ere seinale ona izan: zerbait gertatzen ari zen.

2012ko martxoaren 1a

Etxean sekulako mugimendua dago, denak alde batetik bestera dabilta azken uneko gauzak prestatzen. Bagoaz. Hau jada ez da leku segurua guretzat. Gurasoek behintzat hala diote, eta nik ere zer edo zer entzun dut. Orain arte arazoe-tatik at utzi nahi izan naute: egunkaria irakurtzea debekatu didate, eta telebistan ere, ez didate inoiz albistegia ikusten utzi. Haiek ere ahal dela gaia saihestu dute nire aurrean. Kanean belarriak pixka bat adi jartzea besterik ez da behar zer gertatzen den jakiteko. Gerran gaude. Edo, hobeto esanda, gerran daude, oraindik ere ez bainago oso ziur noren arteko borroka den, ezta zergatik hasi ote zen ere. Horrek, ordea, ez dit axola. Ez da nire gerra, ezta nire gurasoena ere. Dena den, gu gara harekin sufritzen dugunak. Izan ere, ez da batere atsegina gauero burkoaz belarriak estali behar izatea hegaz-kin madarikatuen soinua ez entzuteko. Ez da batere atsegina ondoko herrietatik heltzen diren berriak entzutea, eta jakitea hurrengoak geuri buruzkoak izan daitezkeela. Ez da batere atsegina gauak lo hartu ezinik pasatzea, hurrengo egunaren beldur. Ez, ez da batere atsegina izaturik bizitzea. Horregatik, ez dago beste irtenbiderik: joan egin behar dugu.

Familia, lagunak eta hainbeste oroitzapen atzean utzita, maleta ziztrin bat eskuetan harturik bagoaz. Bagoaz bizitza berri baten bila.

2012ko martxoaren 3a

Iritsi gara azkenean! Autobuseko leihotik zehar BODRUM dioen kartel handi bat ikus dezaket. Hainbeste orduz mugitzeko aukerarik gabe, eserleku deseroso honetan iltzaturik egon ostean, ez dago munduan gehiago poztuko nindukeen berririk azkenean autobus madarikatu honetatik jaitsiko gara jakitea baino. Frenatzen hasi orduko, ia gelditzeko astirik eman gabe, zutik jarri eta arrapaladan irten naiz kalera, atea ireki diren une berean. Hankak eta besoak pixka bat luzatu, eta hara eta hona lasterketa txiki batzuk egin ditut, kaiola batetik ihes egin berri duen animala bat bezain aske sentituz. Handik pixka batera, gelditu, eta oraindik arnasestuka, ingurura begiratu dut. Une batez zirraraturik gelditu naiz. Ez nuen inolaz ere, horrelako lekurik espero. Bidaian zehar, aitak hamaika aldiz esan digu Bodrum hiri arriskutsua dela, eta tentuz ibili beharko dugula hemen gauden bitartean. Hortaz, guztiz ezberdina imajinatzen nuen: bata bestearen jarraian eraikitako etxe-orratz altuz betea eta kale estu eta ilunez komunikatua. Ulertzekoa da, beraz, hartu dudana sorpresa, burua altxatu eta paisaia ikusi dudanean. Nire ezkerretara, etxe txuri txiki pila zabaltzen dira; zaharrak dirudite, baina baita ondo zainduak ere; badute euren xarma. Hauen atzean, landaretza handia dago; ia zeruertzeraino heltzen den landaretza ugaria. Eskuinerantz, ordea, itsaso amaigabeak hartzen du dena. Oso bare dago. Han eta hemen portutik urrun txalupa txiki batzuk ikus ditzaket; ezerezean galdurik. Hiri baketsua dirudi benetan, naturaren erdian, harekin armoniaz bizi den hiria. Ez dut ulertzen nolatan izan daitekeen arriskutsua.

Bat-batean, amaren deiak atera nau nire gogoetatik. Familia, oraindik autobusak utzi dituen lekutik mugitu ere egin gabe, nire zain daukat. Horrela bada, nire motxila bizkarrean hartu eta haiengana abiatu naiz berriro ere korrika txikian. Portura goaz, badirudi gizon batzuekin hitz egin beharrean gaudela gure bidaiaren bigarren fasea lotzeko. Hasiera batean oso hiri lasai eta baketsua iruditu bazait ere, hondartzara hurbildu ahala, geroz eta iskanbila handiagoa dago, eta jendea ere ugaritzen doa. Nonahi, gu bezala, bidaiapoltsez eta beste mila trastez kargaturiko familia osoak daude, edozein izkinatan eserita. Denak zerbaiten zain daudela dirudi. Zeren zain, ordea? Guztiak ote doaz bidaiari? Aurpegiengatik, baina, ez nuke esango oportetara doazenik. Nekatuak dirudite, eta haien begiradetan tristura puntu bat nabari da; helduenen begiradetan, batez ere. Jendetza honen guztiaren erditik, esku bat atera eta tira egin dit. Ama da. “Tira, mugi! Ez zaitez gelditu bazter guztietara begira”. Begietara begiratu diot. Berak ere kezkatuta dirudi. Ez dut ezer ulertzen. Zer gerta dakiguke horrelako leku eder batean? Hemen, itsasertzean eta eguraldi paregabe honekin, gainera. Baina, argi dago zerbait gertatzen dela, badago nik ikusterik ez dudan arriskuren bat nonbait ezkutatuta. Azkenean, gelditu egin gara. Badirudi aitag lehen aipaturiko gizonak topatu dituela jada. Ama, pixka bat atzerago gelditu da, eta halaxe egin dut neuk ere. Guztira bi dira, zein baino zein altuagoa eta mardulagoa. Beltzez jantziak daude eta eguzkitako betaurreko ilunek begiak estaltzen dizkiete. Apur bat beldurturik, amaren atzean ezkutatu naiz. Handik ikusi dut aita eta bi tipoen arteko topaketa. Hitz batzuk trukatu dituzte eta, ondoren, aitag gutun-azal bat eman die. Ireki eta, itxura denez, barruan topatutakoarekin konforme, buruaz baiezkoa egin, eta aitari eskua emanaz alde egin dute, inongo momentuan aurpegiko espresio gogor eta serioa

aldatu gabe. Bi gizonak begi bistatik galtzean, aitak, guregana itzuli eta zera esan digu irribarretsu: “bihar bertan abia gaitzke. Prest itsaso zabala zeharkatzeko?”.

2012ko martxoaren 4a

Badirudi lokartu dela azkenean. Ilunabarrarekin batera indarrak ahuldu zaizkio eta azkenean nekeak irabazi dio beldurrari. Haren begiak ixtearekin batera, azken negar zotinak desagertu dira eta isiltasuna nagusitu da. Isiltasun sakon hori izan da, ordea, nigan izua piztu duena. Jada ez dut ia ezer ikusten, inguruan iluntasuna nagusitu da, eta orain ez dut ezer entzuten ezta ere. Atzean, nigandik oso hurbil, aitaren presentzia lasaigarria nabaritzen dut; aurrean, berriz, mutiko txiki bat daukat. Ontzian sartu garenetik ez du zipitzik ere esan; ez du zipitzik ere egin. Motxila bati heltzen dio estu bere eskuen artean, munduan hura baino gauza garrantzitsuagorik ez balu bezala. Bakarrik dagoela esango nuke. Espresiorik gabeko aurpegi zurbilaz zeruertzera begiratzen du, eta orain dena ilun dagoela, galduta sentitzen dela dirudi; ez daki nora zuzendu begirada. Pena ematen dit. Sorbalda ukitu diot harekin hitz egin nahian. Asaldaturik buelta eman eta niri begira gelditu da. Ilargiaren argi ahularen azpian, ezin izan dut bere aurpegia ondo bereizi. Ez da horretarako beharrik izan, ordea. Haren bi begiek platerak bezain zabalik, nireekin topo egin dutenean, berehala igarri dut zer nolako izua ezkututzen duten. Ni ere halaxe sentitzen naiz, baina nik behintzat, ama eta aita ditut; berak ez du inor. Orduan, amonaren lepokoaz oroitu naiz. Aitak oparitu zidan beldur nintzen gau batez, eta arrisku guztietatik babestuko ninduela esan zidan. Mutikoari berrero ere begietara begiratu ostean, berak nik baino gehiago beharko duela pentsatu dut. Erantzi, eta eskaini egin diot.

Hunkiturik, ez da gai izan ezer esateko. Mugitu ezinik gelditu dela igarririk, hurbildu eta nik neuk lotu diot oparia haren lepoaren inguruan. Esker onez begiratu dit, eta nik ere begirada lagunkoi bat itzuli diot. Orduan, aita sumatu dut nire atzean, eta kezkatu egin naiz. Haserretu ote da? Beretzat balio handiko oroigarria zen. Berehala aldendu zaizkit zailantzak, goxotasun handiz burua laztandu eta inoiz ahaztuko ez ditudan hiru hitz xuxurlatu baitizkit belarrira: “harro nago zutaz”.

2012ko martxoaren 5a

Goizeko lehen eguzki-izpiak agertu dira zeruertzean. Eguna esnatzen ari da. Nire gorputz adarrek, ordea, lo jarraitzen dute oraindik. Jada ez dute hotzez dar-dar egiten; jada ez diete nire aginduei jaramonik egiten. Geldirik daude, besterik gabe, nire gorputzaren parte izango ez balira bezala. Ingurura begiratu dut. Gainontzeko guztiak ere berdin dau dela esango nuke. Olatuen kulunkez gain, ez dago inolako mugimendurik txalupa txikian. Bidaiarien begietan antze-man daitekeen izuagatik izango ez balitz, bizitzarik gabeko panpinak garela esango nuke; lehenago edo geroago urperatuko den paperezko itsasontzi baten barnean noraezean dabiltzan panpinak. Gutako bakoitzaren begiradetan islatzen den ikara horixe da hain zuzen ere, bizirik mantentzen gaituena: beste edozer sentitzeari utzi baitiogu aspaldi.

Aurrera begiratu dut, eta gaueko iluntasun sakonera ohi-tuta, egunsentiko lehen izpiek ia itsutu naute. Egun berri batekin batera, aukera berri bati ere hasiera ematen zaiola esaten da. Nik, ordea, ez dut ezer berririk ikusten inguruan: ur-masa amaiezin bat besterik ez. Ez du axola nora begiratu, itsasoz inguraturik gaude alde guztietatik. Eta hasiera batean

liluragarria zela esan banuen ere, orain sekulako beldurra ematen dit: irtenbiderik gabeko basamortu urdin bat dirudi.

Aitarengana itzuli naiz orduan. Hark ere begirada zeruertzean iltzatua du. Baina, ez dago hari begira. Hemendik oso urrun baizik; txalupa gorrotagarri honetatik urrun. Hari begira nagoela ohartzean, errealitatera itzuli eta irribarre goxo bat eskaini dit; ezer gertatuko ez balitz bezala. Gogor besarkatu nau, bere bularraren aurka estutuz. Nik ere hala egin dut, eta haren beroa nire gorputzera pasa dela antzeman dut. Une batez, salbu sentitu naiz aitaren besoen artean babesturik; une batez, hau guztia amesgaizto bat besterik ez dela sinetsi dut; begiak zabaltzean etxeko egongelan egongo ginela goxo-goxo hirurok elkarrekin. Aurpegira erori zaidan ur-tanta heze batek atera nau nire ametsetatik. Gora begiratu orduko, eztarrian sekulako korapiloa nabaritu dut. Orain arte, nire bizitza osoan ez dut inoiz aita negarrez ikusi, eta haren begiak malkoz bustiak ikusteak lur-jota utzi nau. Azken esperantza-izpiek nire ondotik alde egin dute une honetan bertan. Nire burua amildegi batetik behera erortzen irudikatu dut; baina oraingo honetan ez da aita agertu azken mementoan esku bat luzatzeko, ezta bere beso indartsuen artean gogor estutu eta ni kontsolatzeko ere. Oraingo honetan, nirekin batera amildu da eta ez dago inor behean gu jasotzeko.

Bat-batean, doinu aski ezagun batek, amildegi hondotik erreskatatu eta etxeko egongelara eraman nau berriro. Oraindik ere aitaren besoen artean, begiak ireki eta ama ikusi dut. Sehaska kanta bat abesten ari da. Haren begiak lausotuta daude, baina ez dago izuarentzat lekurik hauetan: samurtasunez beteak daude. Eskutik heldu diot, eta neu ere kantatzen hasi naiz. Berehala, beste zenbait ahots batu dira korura: Ezker-eskuin begiratu dut harriturik. Bidaiariengan

pixkanaka-pixkanaka itzaliz zihoan txispa berpizten ari dela dirudi. Nire aurrealdetik ahots fin eta hauskor baten melodia atsegina iritsi zait orduan. Nasim da. Izuari atsedenaldi bat eman eta ahotsa berreskuratu duela dirudi. Pozik, sorbaldatik heldu eta ozenago abesteari ekin diot. Eta azkenean, bi-daia hasi zenetik unetxo batez besterik izan ez bada ere, lagunartean seguru sentitu naiz.

Oihu batek kantua eten du. Ingurura begiratu dut asaldaturik. Mundu guztiak urduri dirudi: batzuk pozaren pozez negarrez daude; beste batzuk sekulako susto aurpegia dute; beste batzuek mesfidati begiratzen dute itsasorantz... Eta orduan ulertu dut dena. Bihotza ehun kilometro orduko abia-duran hasi zait taupaka, bularretik ihes egingo didala pentsatu dut. Parean, gugandik ez oso urrun itsasontzi handi bat begiztatu dut.

...

Beste aldean begiratu dut, baina ez dago beste ezer idatzita. Koadernoko orri guztiak pasa ditut; denak hutsik daude, ordea. Egunerokoa hor bukatzen dela dirudi. Dena den, amaiera iragar dezakedala iruditzen zait. Liburua eskuen artean itxi, eta hasperen sakon batez burua altxatu dut. Malko bat masailetatik behera jausi zait eta irribarre egin dut. Berotasun atsegin batek zeharkatu dit gorputza, azken aldian buruan zebilzkidan buruhauste eta kezkek ezabatuz, eta aspaldiko partez, ni neu izateaz harro sentiaraziz: harro nire jatorriaz, harro nire jendeaz, eta batez ere, harro nire aitaz. Hartan pentsatzeaz soilik, hunkitu egin naiz, eta besarkada bat emateko sekulako gogoia piztu zait. Oraindik egunerokoa eskuartean harturik, ziztu bizian jaitsi ditut eskailerak, egongelara heldu naizen arte. Atea erdi itxita dago, eta barrutik argia irteten da. Zirrikitutik burua atera

eta barrura begiratu dut. Han daude biak: Nasim eta aita, betiko lagun handiak. Eurengana hurbildu nahi izan dut, besarkada bana emateko, baina, bat-batean pentsamendu batek geldiarazi eta lotsak bereganatu nau; guztiz inozo sentitu naiz. Ordu batzuk lehenago biez lotsatu naizela oroitu naiz, baita nola haserretu naizen ere, ume txiki eta berekoi bat bainintzan. Gelara itzultzeko asmotan, buelta erdia eman baino lehen, egongela barrura azken begirada zuzendu dut, eta nire begiek aitarenekin egin dute topo. Une batez, liburuari begira gelditu da, eta ondoren, irribarre gozo bat eskaini eta buruaz sartzera gonbidatu nau. Hala egin dut, pausu zalantzatiez hasieran, aurpegira begiratzeko ausardia-rik gabe, eta korrika gero, bien parera heldu eta besarkada batean bat egin dugun arte. Ez dugu hitzik behar izan elkar ulertzeko. Nasimek lepoan daraman urrezko lepokoari begira gelditu naiz. Egia esan, aspaldi erreparatu nion bitxi horri, baina gaur arte ez dut jakin zein den haren benetako balioa. Azken finean, heroi baten garaikurra da, adiskidetasun sakon eta indartsu baten adierazlea. Eta ni, inor baino zoriontsuago sentitu naiz bi heroi hauek etxean, nire besoartean, izateaz.

Loreak udazkenean

Maddi Zabalo Mateos

Arratia BHI

Igorre

Azken berrogei urteetan egin dudan modura, gaur ere loreak jarri ditut sarrerako mahaian, badaezpada ere. Horrela, bueltatzen zarenean, egongela joan zinenean bezala ikusiko duzu.

Orain dela lau hamarkada joan zinen, eta inoiz ez zinen itzuli, baina jakin ezazu etxea berdin dagoela, pintura kaparen bat tarteko. Nire limoi-koloniaren betiko usain berbera du.

Kolonia ere ez dut aldatu. Egunero botatzen dut apur bat, zorte apur batekin egun horretan etorriko zarela, eta berriz ere dena berdina izango delakoan.

Baliteke aldatu den bakarra ni izatea. Urteek ez dute ezer barkatzen, badakizu, eta laurogeita bostgarren urtea aldean izateak ez dizkit gauzak errazten, baina etxeko lanak egiteko eta noizean behin herrira jaisteko indarrik dudan artean, nahikoa da.

Nola ez, memoria ere galtzen ari naiz baina zure masail gorriekin ederki gogoratzen naiz. Oraindik egiten dut irribarre esku hotzak bizkarretik sartzen nizkizunekoak oroitzean, edo beti bezain arin eta ozen hitz egiten zenuenean txundituta gelditzen nintzela. Argi dago kanpotik beste bat

naizela, normala denez, baina betiko berdina, berez, memori-
riek egiten baikaituzte gu, zati handi batean.

Askok zorotzat naukate. Arrazoi puntu bat badaukate, egia da. Izan ere, urteak daramatzat oroitzapen eta argazki multzo batekin ezkontuta, baina, adin honetara helduta, zeregin hoberik ez daukat gaztaroko maitasun istorioak gogoratzea baino, eta esperantza galtzen den azkena bada, memoria galdu arte itxarongo zaitut, zure jertsea aulkian tolestuta eta zure argazkiari hautsa ondo kenduta. Limoi-kolonia gozoa aldean eta ezkontza-eraztuna hatzean, dena betiko lekuan.

Zu itxarroteaz gain, asko idatzi dut azken aldian. Orain ez daukat beste zereginik eta zerbait utzi nahi nuke munduan, aztarna bat, hemen egon nintzela erakusten duen zerbait, eta beraz, idatzi egiten dut. Inoiz baino gehiago pentsatzen dut, hausnartzen dut, bizitzari buruz, oro har, baina heriotzari buruz, bereziki.

Urteetan zehar, eta oraindik ere, heriotza da gizakion beldurrik handiena, eta baita galderarik zabalena ere. Zer dago heriotzaren ostean? Nora goaz? Nire galderak ez dira horiek, berez. Egia esan, hori ez jakiteak zirrara handiagoa pizten dit jakiteak baino.

Aldiz, heriotzaren edertasuna antzematen hasi naiz. Udazkenak irakatsi dit hori, heriotza ere polita izan daitekeela. Izan ere, baso gorrixketatik goazenean, heriotzari, naturaren heriotzari begira geratzen gatzaizkio liluratuta. Beraz, naturaren heriotza hain ederra, hainbeste esperotakoa izanda, zergatik ematen digu hainbesteko beldurra gureak? Ez al da nahikoa bizitza oso batekin munduan? Gehiago ere behar da?

Galdera handiak. Susmoa dut erabaki behar izan arte ezingo ditudala erantzun.

Gaur ere, zuhaitz erdi biluziak lotsagorritu egin dira leihotik begiratu dudanean. Haize hotza badator guregana, apurka-apurka, eta ilea aurpegira ekartzen didanean, faltan botatzen dut zure eskuak belarri ostean jartzea, emeki.

Basoaren gorriak ezkondu ostean erosi zenidan soineko eder hori dakarkit gogora, domeketan bakarrik ateratzekoa zena, baina aukera nuen guztietan jantzen nuena, gehiegi gustatzen zitzaidalako astebete itxaroteko. Ez dut berriz jantzi, joan zinenetik. Armairuan gordeta daukat, hondatu ez dadin, eta sarri zabaltzen dut armairuko atea honi begiratzeko, itzultzen zarenean zein zapatarekin jantziko dudan pentsatuz. Lehen egiten genuen modura, zinemako atzeko aulkietan jesartzeko, eta, barre lotsati artean, batak besteari filmari baino kasu gehiago egiteko.

Gogoratzen dut nola begiratzen zidan herriko jendeak soineko hori jantzen nuenean; jantzi laburra, eskotea eta kolore deigarria, edozein txutxu-mutxu hasteko gai ezin hobe. Hasieran, gaineratik jaka luze beltz bat eramaten nuen kalera irteteko, lotsatu egiten nindutelako begiradek. Zuk irakatsi zenidan begiradei kasurik ez egiten, nahi nuena jantzen kaletik, eta handik aurrera, takoiekin eta ezpaine-tako gorriarekin erabiltzen nuen. Ez dakizu zelako askatasuna sentitu nuen begiradak igarri, eta, dena-dela, aurrera jarraitzeko ahalmena neukala ikusi nuenean. Ez dago apurtxo bat lotsabakoa izatea baino hoberik.

Gazteak ginen orduan, ezkonberriak, ez ginen nekatzen dantzan egiteaz, ez elkar musukatzeaz, ez laztantzeaz. Gaur egun ere, ez naiz nekatzen zure argazkia begiratzear, eta,

batzuetan, gaztaroan entzuten genuen musika jartzen dut bakarrik dantzan egiteko. Egunen batean zurekin egingo dut.

Beste egun bat gehiago bizitzan. Beste egun bat gutxiago bizitzan. Esnatuaz bat, eguneroko lore-sorta jarri dut sarre-ran, txortena eta bizitza moztu berri dituzten lore- sorta koloretsu bat, zuretzat.

Askotan galde egin diot neure buruari, ea bizirik edo hilda zauden, zure loreen modura. Hilda bazaude, espero dut pozik hil izana; maite zenuen jendearen artean, leku lasaian, kontzientzia lasaiarekin. Horrela bada, uste dut laster elkar-tuko garela. Hor goian, edo hor behean, edo hor nonbaiten, ez dit asko axola non.

Heriotzaren kontua hain argi edukitzeak noizbehinka beldurra ematen dit, bertigoa. Baina ondoeza arraro bat sentitzen dut, inoiz sentitu ez dudana, eta haxe jarraitzea erabaki dut.

Ondoezaren iturria zein den jakiteko, beraz, trenean me-dikuarengana noa gaur, azken asteetan izango dudan lehe-nengo elkarriketa edukitzera, pertsona errealekin, gutxie-nez, gure etxea nahiko bakartia da eta.

Izugarri gustatzen zait treneko bidaiariei begiratzea, haien bizitzak imajinatzea, haien elkarriketak kanpotik entzutea. Batzuk badaude sakelakoari itsatsita, munduarekin konektatuta, edo mundutik deskonektatzeko saioak egiten, edo baliteke, besterik gabe, kotxe-lasterketetara jolasten, edo amari zenbat maite duten esaten egotea.

Nire aurrean eseri den gizonarengana zuzendu dut begi-rada; traje eta maletadun gizon aspertua, lanetik etxera eta

etxetik lanera, bere bizitzako trenea galtzear dagoena, seguruenik. Pena da, begirada bizia du, eta gaztetan kementsua eta alai izango zen, seguruenik. Baina bere bizitzarekin zer egin erabaki behar zuenean, *probetxuzko zerbait* egiteko presioa jasango zuen familiaren partez, eta Finantzak ikas-tera bidaliko zuten, bere orkestra-zuzendari izateko ametsa alde batera uztera behartuz. Orain familiaren iritziaren eta soldata baten gatibu biziko da, eta bere zuzendari-batuta aspaldi botako zuen, bere ametsekin batera, horregatik dauka hain itxura tristea, bere sormena amaigabeko lo-zorro batean utzi duelako. Edo, agian, etxean kafea bukatu zaio, eta benetako lo-zorro bat da behar duena, batek daki.

Nire geltokia heldu denean, bere horretan utzi dut gizon aspertua, eta banoa kalera. Jendearen artean bere bidea egin du haize hotzak, niregana heldu arte, aurpegian laztan izoztu batez ongi etorria ematera.

Medikuak ez dit berri onik eman, eta bueltako bidaiari nire pentsamenduak apur bat isilago joan dira. Nire azkena laster etorriko ei da. Esan nizun moduan, zerbait txarra nabaritzen nuen, baina ez dio axola, urte asko daramatzat hemen nahikoa izan dela jakiteko, nire ustez.

Aldi berean, udazken gehiago ez ikusteak, edo beste tarta gainera kandelarik ez amatatzeak edo treneko jendea gehiago ez begiratzeak, bat-batean, nire masailean zehar arrasto gazi bat utzi duen malko bat ateratzen dit. Orain ulertzen dut zer den, zergatik dion gizakiak hainbesteko beldurra heriotzari, zergatik laurogeita bost urteren ostean ere, agian ez den nahikoa.

Bai, aitortzen dut, beldurra diot heriotzari. Behin hurbil ikusita, susmoa baino gehiago edukita, beldurra diot mundutik joateari, eta inoiz baino nahasiago daukat burua.

Inkoherentzia bera pertsonifikatuta naizela sentitzen dut, hainbeste idatzi ostean, hausnartu ostean, erabaki ostean beldurrik eduki behar ez zaiola, ni ere jausi naiz.

Astebete da medikuarenera joan nintzenetik, eta orain dena ikusten dut ezberdin, hartuko dudan azken kafea izango balitz bezala begiratzen diet kikara denei, jarriko dudan azken lore-sorta balitz bezala begiratzen diot sarrerako lore-sorta bakoitzari, entzungo ditudan azken notak balira bezala entzuten ditut kanta guztiak.

Gainera, udazkena itzaltzen dabil, apurka-apurka. Jada ez dago hosto gorrixkarik, edo haize bihurrik, edo euri-zaparradarik. Orain dena dago isilik, hilda bezala.

Paisaiaren moduan, nire masailek eta ezpainen ere hostoen kolore gorrixka galdu dute, eta begiek begirada bihurria, eta orain negua daukat aurpegian, ezpainak more, begizuloak ilun, aurpegia zurbil.

Beti uste izan dut neguak lasaitasuna zekarrela, isiltasuna, bakea, norbere buruarekin egoteko unea. Orain, aitorzeak amorrua ematen badit ere, gauza horiek denek itolarria ematen didate.

Kuriosoa da egun batetik bestera nola aldatzen garen, nola aldatzen diren gure pentsamenduak. Inoiz ez diot beldurrik izan ez bizitzari ez heriotzari, eta orain amesgaiztoak dauzkat bigarren horrekin. Agian ezin izate hutsa da bizitzari inoiz baino estuago eustera bultzatzen nauena.

Sarrerako lore zimeldua naiz, bizitasuna antzeztu nahian, bere lurrinaren azkena ematen, laster ustel-usaina zabalduko duela dakien arren. Eta beldur naiz.

Heldu da amaiera. Bular-aldeko minak diost hauek izango direla nire azken hitzak. Minez lorrinzen naizen eta begirada lausotzen zaidan arren, badakit zer egin. Geratzen zaidan indarra hartuta, bihotz fisikoa minduta, bihotz ez-fisikoa pozik uzteko asmotan, gure logelara noa.

Bertara heldu, eta buruan plana mila aldiz errepikatuta banu bezala, guztiz mekanikoki egin dut dena; armairutik soinekora hartu, jantzi, eta ohean etzan naiz, tela zaharraren eta nire gorputz are zaharragoaren arteko hutsuneak sentituz, urteen ondorioz alde egin duten kiloen erruz.

Pareko horman zure argazkia daukat eskegita, eta zure zuri-beltzezko irribarrea enegarrenez begiratuta, lo gelditu naiz.

Lo antzean.

Nire begi makalak argira ohitzen hasi direnean, espero ez nuen irudia jaso dute. Hiri handiren bateko plaza batean nago, esango nuke igande arratsaldea dela, eta nigana hurbildu zara, zure betiko lasaitasun horrekin.

–Arratsalde on! Bagoaz zinera?

–Ederki.

Urteak aurrera joan ahala, gero eta hitz gutxiago behar dira *maite zaitut* esateko.

XX. mendeak zure ausardia gainditzen duenean

Sofia Zacharova
Markina BHI
Markina-Xemein

Ostiral goiza da, zortziak inguru, ez dakit zehatz, oraindik ezin ditut begiak ireki. Norbait nire aurrean jarri dela sumatu dut, norbait ezaguna, mutilen bat ote da? Ezinezkoa, oso goiz da gelan sartzeko. Ez dago mutil bat bera ere klasera sartzen denik komunetik pasatu orduko. Bekarrak atzamarrekin kendu, begiak ireki, eta begirada altxatu dut. Begiek nire aurrean dagoen figura ikusi eta informazioa burmuinera bidali bezain pronto jaitsi dut begirada. Nire aurrean, hain liraina, hain adiktiboa den neskaxa dago. Ordu honetan nire Hirugarren Mundu Gerra bihurtzen dena, nire buruaren gallerarako. Aulkian eseri eta zorrozkiola atera du. Lehen Hezkuntzako 3. mailan nik oparitu niona da, sinestezina da oraindik zorrozkiola hori edukitzea. Orain dela 11 urte erosi nion, berea nik apurtu niolako, gelan, andereñoak printzeen eta printzesen amodioak kontatzen zizkigun bitartean. Txikitatik irakurtzen zizkiguten amodiozko ipuinak, printzesa printzipe batekin maitemintzen zenekoa, baina inoiz ez printzesa batekin, ezta printzipe bat beste printzipe batekin amoratzen zenekorik ere. Zergatik? Badakit, badakit erantzuna, erreginari ez zitzaiolako ondo irudituko, nire ama kuttunari ere ez. XXI. mendean bizi gara bai, baina berak oraindik XX. mendeko pentsaera dauka, gajoak. Berak ez daki gure bizimodu modernoko plazerak dastatzen, dastamena nolabait ahituta dauka. Guri oraindik hainbat sentsazio, plazer, zapore gera-

tzen zaigu miazkatzeko, Karraspioko hondartzan kokatzen den dendako izozki zaporeak baino gehiago.

Ez dakit zer egin, nora begiratu, zer aurpegi jarri edota zer aldera bota ilea, eskuinerantz edo ezkererantz, nola ikusten naiz apainago? Garrantzia du horrek? Ez dakit jada zerk duen garrantzia eta zerk ez, ez naiz gai nire bizitzan lehentasunak jartzeko. Nire ondoan dagoen zakarrontzia besarkatuko balu bezala dago arkatzari punta ateratzen, bere esku hauskorrekin. Niregandik zentimetro batzuetara dago nire maitea, oso hurbil, larregi esango nuke, nire pentsamenduak irakurri nahian egongo balitz bezala, ez mesedez, hori ez. Bakoitzak bere pentsamenduentzako toki bat du, baka-rrik haientzat, inork ez du eskubiderik espazio horretan sartzeko. Toki hori ez da norbait egoteko, ez da norbaitekin partekatzeko, leku hori paregabea da, zu zarena izaten uzten zaituen txoko bakarra. Bere ileak estaltzen dituen begi marroi distiratsuetara eta gero atzamarretara bideratu dut begirada, argalegiak niretzat. Beldurra emango lidake bere esku goxoak nire esku artean laztantzeak, gehiegi laztantzearen izu, apurtuko lirartekeen ikara.

Hasi da goizeko desfilea. Azken denboraldiko soinekoak dira gaur nagusi. Victoria's Secret-eko modelo hauek bata bestearen atzetik beren lekuetan eseri bezain laster hasi dira txutxu-mutxuak. Noizean behin gainbegiratzen gaituzte besteok, ea zein dagoen gizarte honetan onartuta dagoen janzkeratik at. Batzuetan, nire ama etortzen zait burura, dena kritikatu beharra, “horrek orrazkera zatarra du, besteak gona motzegia”, Bilboko metroan neska gaztea ikusi genuenean bezala, gure aurretik pasatzearekin batera ahoa zabaldu baitzuen: “Gona hori oso motza da”, “ipurdi osoa du bistan”, “ez da lotsatzen?”. Eta orain, zelan esan nire ama kuttunari printzesa bat dudala maite, gonari ere neurria jartzen badio?

Bederatziak dira. Nire Hirugarren Mundu Gerra ebatzi ezin den ekuazioa bihurtu da. Orain ezin dut ikusi, ezkutatuturik baitago hainbat mahai eta aulkiren artean, nigandik urrun. Hura imajinatzea beste aukerarik ez zait geratzen. Ordu bat haren edertasuna imajinatzen, hori bai gustagarri! Munduko plazeretatik handiena irudimena erabiltzea da. Orduak ematen ditut pentsatzen, nire munduan hondoratzen, bainuko uretan sakoneratzen, amak izorratu arte. Beti galderaz josten bainau. Bakean egon nahi duena utzi ezin. Berak ez daki bere jakin mina, bere XX. mendeko bizia eta bere neurria jartzeko araua direla ura botatzen didatenak, gero eta sakonerago joateko, gero eta itoago sentiarazteko eta bultzada batekin itsasoan ateratzeko, arnasa itsasoan hartzeko, itsaso askean. Askea izan nahi dudan bakoitzean kartzela honetako nabarrekin egiten baitut topo. Haiak esaten didate debekatuta dudala aurrera joatea, ezin naizela kartzelatik atera, ezin dudala kartzelatik kanpo dagoena egin, ezin dudala hori jantzi, bestea esan, izan...

Gaur koadrodun alkandora, bakero marroiak eta orain dela 50 urteko zapatak dituen bibotedun gizona hurbildu zait. Gaurko gosaria usaindu diot. Kafetxea eta kaneladun gailetak. Sorbaldan kolpetxo bat eman dit, berehala bota du ea zergatik ez naizen saiatzen ekuazio hori egiten, ekuazioari soluzio bat aurkitzen. Baina ba al daki zenbat aldiz saiatu naizen? Zenbat aldiz egon naizen hain hurbil eta zenbat aldiz egin dudan porrot? Nire egunerokotasuneko arazoa hori baita. Egunero saiatzen naiz. Egunero joaten naiz amarengana esaten, gaur bai, gaur kartzelako nabar muga horiek pasatuko ditut. Esango diot nire amodiozko ipuinean printzesa bat dudala maite. Nire ezkontzan ez duela soineko bat ikusiko, ez bada bi. Eta hau dena buruan dudala berarengana hurbiltzen naiz, berak neuri begiratzen dit eta... Ezer ez, ezin izaten dut ezer ahotik atera, ez zait hitzik ateratzen, dena

neure burmuinean geratzen da, ez da irteten, nabarren arauak ez dute uzten. Isilik geratzen naiz, neure ausardiaren bila.

Txirrinak jo, bibotedun gizona agurtu eta latineko klaserara noa. Bidean pare bat laguni agur esan diet, baina ez naiz eurekin hizketan geratu, ez dut gogorik. Gelara sartu, eseri eta hamar minutu pasatu ostean, gelan bi ikaskide soilik geratu dira, besteak beheko solairuko kaxa batzuk eramaten laguntzera joan dira, beti lausengutan. Bi ikasle geratu dira, ni eta neure Hirugarren Mundu Gerra, ekuazioa, desira, neure maitea. Bakarrik geratu gara, isilpean, ezer esan gabe, edo, zer esan jakin gabe, ez dakit. Gure aurrean dagoen leihate handiari begira gaude. Nire ausardia aurkitu nahian, nonbait egongo den ustean, hemendik urrun, hemendik Jamaikara arte. Lekeitiotik Jamaikara arte.

Zoriaren show-a

Aratz Fernández de Pinedo Irastorza
Armentia Ikastola
Vitoria-Gasteiz

Munduko gailur garaienera igo izan banintz bezala, goia jo nuen. Amarekin ondo eta aitarekin berdin. Ikasketetan esfortzu handirik gabe lortzen nuen gainditzea. Garai hartan, nahikoa eta soberan. Aitona-amonekin ondo moldatzen nintzen, gustura kontu-kontari. Baina indarra ematen zidana bereziki, Itsaso zen. Elkarrekin hazi ginela esan dezaket, elkarrekin lehenengo aldiz maitemindu. Ilusioa nuen. Ilusio faltsua, ordea. Dena den, neska-lagunaz gain banituen lagunak. Lagunak barra-barra. Peio eta Markel lagun minak. Koadrilakoak. Futbolekoak. Gelakoak. Kalekoak. Parranda-koak. Instagramekoak.

Mendi erraldoia, ordea, karta hutsetan sostengatzen zen. Denak ziren ezinbesteko, ezinbesteko oreka mantentzeko. Kalkulu txikienak ere eginda eduki arren, kanpo eragileak ahaztu nituen problema ebazteko garaian. “Atmosferako aldagai meteorologikoez, lurpeko urez, glaziarrek, itsas urez, haize bortitz edo ur basatiek ingurunea eraldatzeko ahalmena dute”. Geologiako apunteek diote, ez nik. Banan-banan erori ziren karta batzuk eta hauen atzetik jo zuten lurra gainerakoek.

Izan ere, egunen batean, beste edozein bezalako batean, gutxien espero duzun pertsona horrek labankada sartuko dizu bizkarrean. Momentu horretan konturatuko zara zein

krudela den errealitatea, injustua dela, jendea zein koldarra den, zein hipokrita. Baina horrelakoei esker utziko diozu momentu batez itsu, ardi ikarati izateari.

Tristea da baina maiz beharrezkoak izaten dira halako kolpeak inguruari beste begi batzuez begiratzeko. Ikusteko inguruan duzun zerrikeria makillatua. Zerriek ere lokatzetan zikintzen baitute beraien burua. Tira, zikindu edo garbitu.

Gertatu beharra zuen eta gertatu zen. Normalean entrenatzera joateko erabiltzen nuen bidea hartu beharrean, luzeago baina lasaiago batetik joatea hautatu bainuen. Eta hantxe zeuden, paseoko banku batean bata bestea itolarriz musukatuz. Itsaso eta Peio. Bata besteari mingainaz ahoko zirrikituak deskubritzen, eta aurrerago kontatu zidaten bezala, aspalditik zetorren kontua. Peio burutik pasa zitzaizkion aitzakia guztiak botaka eginez hasi zen. Itsaso, berriz, lekuz kanpo egongo balitz bezala, ez zen begietara gehiago begiratzera ausartu. Tira, ausartu baino paso egin zuen, gerora Peio eta biek urtebete pasatxo egin baitzuten elkarrekin. Nik, berriz, inozo aurpegiarekin, ez nekien negarrez hasi edo sutan jarri.

Begiek aukeratu zuten nigatik eta begiak malkoz beteta nituela korrika alde egin nuen.

Lehenengo kartak besterik ez ziren haiek. Luizia edozein momentutan etorriko zen. Peio eta bion arteko harremana hozten hasi zen. Itsasorekin bezala, izoztu arte. Horrela, esperantza guztiak galduta, lagun egarririk gabe, denboraren poderioz nire koadrila zenak nirea izateari utzi zion. Laguntzat nituenak ez ziren lagun. Inor ez zen nire egoeraz ohartu, ez behintzat niregana hurbiltzeko bezainbeste. Peio

artzainak ardi guztiak zituen atzetik eta ni basoan abandonatuta utzi ninduen.

Burumakur, egoera tamalgarriaren aurrean negar egiteko inor eduki gabe, ezer gertatuko ez balitz bezala, etxean normaltasuna antzezten saiatzen nintzen. Aktore eskasa naiz, ordea, eta garai hartako eskolako gabeziak eta futboleko gora-beherak nahikoa izan ziren gurasoekin izango nituen iskanbilan sua pizteko. Nahiz eta futbolean gustura ibili, jolasteko gogoia galtzen nuen maiz, aitak onena izatera bultzatua sentitzen nintzelako. Amak niri erabakitzen uzteko esaten zuen; aitak, gustura nenbilela eta asko hobetzen ari nintzela; amak, berriz, egia izango zela baina lasaiago utzi behar nindutela. Gero, bazkariko edalontzietan botatako ura epel zegoelako eztabaidatuko zuten edo marrubi zaporeko jogurtak erosi beharrean marrubi zatitxoak zituen jogurt naturala erosteagatik. Sugarrak handituz, gurasoen arteko harremana ere erre egin zen, ni, maitasun bizienaren fruitu ustela, errudun bakarra nintzelarik.

Handik gutxira, gainera, hanka apurtu nuen sei hilabeterako, eta futbola denboraldi baterako alde batera utzi.

Sofoklesekin edo Euripidesekin ez zuten halako tragediarik sekula imajinatu. Esajeratua izango naiz agian, baina amonaren azken argazkia eskelen orrialdean ikusteak barrenak nahastu zizkidan. Aitonak ez zuen dolua pasatzea lortu.

Handik egun batzuetara, egunkaririk ebakitako eskela malko artean berrikusten nenbilela zera irakurtzen nuela imajinatu nuen: “Goian bego zure bizitza zaharra ere”.

Hutsune sakona nuen nire barrenean. Lehenbailehen betetzeko beharra nuen hutsunea.

Plato koloretsu bat. Aurkezlea dotore jantzita, ahots gogai-karriaz: “Jaun-andreok, ongi etorri zoriaren show-ra!”. Txa-loak. Ikuskizunetako musika. Presentatzaileak darrai: “Jarraian aurkeztuko zaizkizuen aukeretatik zein hautatu zuen bizitzea gure zorigaitzeko protagonistak? Egin apustu! Zerk bete zuen hutsunea? Egin apustu, jaun-andreok! Egin apustu!”.

“Jaun-andreok, hona hemen lehenengo aukera!”.

Matematika bihurtu zen Peio, geografia Markel, fisika Goizane, teknologia Manex, biologia Itsaso eta hizkuntzak bilakatu ziren gainerako lagun eta ezagunak. Kimikak ordezkatu zuen futbola eta geologiak parranda. Ekonomiak hartu zuen aita eta historiak ama. Egongo ziren gauza gehiago ere, denak zaletasun ero hark bereganatuak. Ikasketak bihurtu baitziren bizitzaren ardatz urte luzeetan zehar. Dena jakiteko ustean, ezer ere ez zekien. Egindako esfortzu guztiak, xahututako denbora guztia, arimarik gabeko zenbakien truke eman zituen, etorkizuna noiz iritsi esperantza bakarrarekin. Noten truk saldu zuen denbora! Paperean idatzitako zenbaki huts batzuen truk!

“Zirraragarria benetan, jaun-andreok, jarraian duzue bigarren aukera!”.

Sare sozialen bidez ezagutu zuen Maria, lehenengo egunetik hasita, aldioro hitz eginez. Mezu bidezkoa hitz egitea bada, bai, isildu gabe egoten ziren hizketan, nahiz eta berez bakoitza bere etxezuloan sartuta isil-isilik pantaila tekleatuz egon. Ezagutu, horrela deitu badiezaiokegu, eta aste gutxira geratu ziren lehenengo aldiz, begietara begiratzeko. Maria neska jatorra zen, beti irribarrea eskaintzen zuen horietakoa. Mutilak ez bezala, bazuen lagun talde on bat, baina berak mutil laguna eduki nahi zuen, agian, maitemindu nahi zuelako edo agian, beste lagunek bezala, inbidiagatik, kapritxoa

zuelako. Mutil gizajoa ere bikotekide bila zebilen, bakardadearen kontrako antidoto gisa. Egun horretan bertan mugikorra tekleatuz bezala musukatu eta, gehiagorako astirik gabe, Mariak, igeriketa entrenamendua zela-eta, joan egin behar izan zuen.

Handik gutxira bikote ziren. Batak maite zuela esaten zion besteari eta honek irribarre batez, berak ere izugarri maite zuela esaten zion. Batak futbola utzi zuen eta besteak igeriketa, elkarrekin denbora gehiago pasatu ahal izateko. Huraxe zen maitasuna. Uda iritsi eta herriko festetan ere elkarrekin egon ziren, beste inor ez omen zuten behar.

Urtebete igaro eta “nire lagun bakarra zara, ez nazazu inoiz utzi” esan zion batak, besteak erantzunez “nik ere zu zaitut lagun bakar, asko maite zaitut”. Maria maitemintzen hasi zen, mutil lagunaren ausardia eta goxotasunak lilurata. Arratsaldero-arratsaldero, elkarrekin egoten ziren, egunean zehar gertatutakoen berri emateko. Naturaltasun osoz, neskak betiko lagunekin hitz egiteari utzi eta gurasoekin zuen harremana moztu zuen. Mutila ezkerreko hankaz jaikiz gero, errudun sentiarazten zuen, errudun bihotzaren barrenean zuen zuloaz. Biak bakarrik, baina Maria berak uste zuena baino are bakartuago.

Horregatik, akaso, elkarrekin jarraitu zuten urte luzez, batak bestea galtzeko beldurrez, Maria ezkerreko hankaz gogor zapaldua zelarik, maitasunaren izenean. Zapalduak gustura zapaltzen du aukera duenean.

“Gogoeta bikaina! Jaun-andreok, segidan duzue hirugarren aukera”.

Ia ahaztua zuen lagun batekin elkartu zen, berak bezala bizitza hankaz gora zuen batekin. Desesperazioak jota agian,

soluzio errazenera jo zuten. Tabakoaren nikotinak, haxixak, marihuanak, heroinak, anfetaminak, onddo aluzinojенок... Zorion unetxo bat oparitzeko baldintzapean, edozeinek zuen arimaren barnerainoko oztoporik gabeko bidea. Ikustekoa zen bikotea: beti banku berean. Kez blai. Bizioak asetzeko ardura bakarrarekin. Udako bero zein neguko hotz eta euritean. Denbora motel-motel nola zahartzen zen ikusiz. Ikusi, gauza asko ikusten zituzten. Dragoi txinatarrak manikura egin berri, airean flotatzen zuten ipurdi magikoak, hortzik gabeko dentista morea, tabernako barran hitz egin eta garagardoak oparitzen zituen untxi erraldoia... Bazen, halere, ikusten ez zutenik: Beraien burua. Denborak aurrera, argumenturik gabeko serie merkearen ikusle soilak bezala jarraitu zuten. Axolagabe. Ezjakin.

“Liruragarria benetan, jaun-andreok, luzatu gabe hemen duzue laugarren aukera”.

Kirola egitea betidanik gustatu zitzaion eta, seguruenik nahi gabe, egoera hartara ailegatzeko asmo garbirik gabe, egin zuen egin zuena. Ariketak eta mugimenduak eragiten zion poza ikusirik, soka honetatik indar guztiekin tira egitea erabaki zuen. Futbola alde batera utzi eta gimnasioan aurrena, mendian geroago, korrika egiteari ekin zion. Handik hilabete batzuetara, krisalida hautsi eta tximeleta atera zen, lorez lore, mendiz mendi, lasterketaz lasterketa firin-faran dantzan. Lasterka egiteak lasaitasuna eta segurtasuna ematen zion hasieran, baina geroago korrika egitea ezinbesteko zuen lasai eta seguru egoteko. Ezin zuen beste ezertan pentsatu (nahi izanez gero ere, ez zuen aukerarik). Beste behin ere adikzioa.

“Hara! Jaun-andreok, hemen duzue bosgarren aukera”.

Atea jo eta denborarik galdu gabe, sekulako hitz jariora zuen gizonak. Nahiz eta hasieran zalantza sortu, konben-

tzitu egin zuen. Esperantza eman zion hain une larria bizitzen ari zenari. Jehovaharen Lekukoekin elkartu zen. Interneten sektatzat jotzen zela irakurri zuen, baina horrek ez zuen eraginik izan jakin-mina asetu nahian haien lokalera hurbiltzeko garaian. Aurreneko egunetan bitxiak egin zitzaizkion debekuetako asko. Debekatua zuen odol-transfusioak egitea, botoa ematea edo urtebetetzeak ospatzea. Zer axola zion horrek? Debekatuta izan ez arren, ez zuen odola ematerik pentsatzen; boto batek ezertarako ere ez zuen balio; eta urtebetetzeak? Norekin ospatuko zituen urtebetetzeak? Aurrera jarraitu zuen. Zuzen-zuzen betetzen zituen sektaren arau zorrotzak. Bazirudien gustatu egiten zitzaiola. Tira, kontakizuna bukatu da, aurretik esandakoa nahikoa baita imajinazioa martxan jarri eta zer gerta zekiokkeen irudikatzeko.

“Aukeratu al duzue, jaun-andreok?”. Musika misterio-tsua. Egoera girotuz argi ilunak. “Aski al duzue aurrekoa, erantzun zuzena aurkitzeko? Jaun-andreok, jarraian emango dizuegu pista definitiboa, dena erabakiko duen arrastoa. Hasierako egoera oinarriztat hartuz, handik hirurogei urteko une bat oparituko dizuegu, pantailan agertzen den telefono zenbakira deituz gero. Aukera ederra buruhauste guztiekin bukatzeko! Egin apustu, jaun-andreok! Egin apustu!”.

Basoan bizi naizenetik, libreago sentitzen naiz. Basora etorri naizenetik, bizitza guztian zehar zapaldu nauen bizkarreko pisua desagertu da. Udako goiz epelean zelai berdean barrena nabil, ihintzak hanka oinutsak bustitzen dizkidalarik. Zozoa entzun dut zuhaitz bateko adarretik ihesi. Ez dut ikusi. Lanbroak ezkututzen dit. Nik, ordea, badakit hor dagoela, ez ikusi arren. Nik badakit bizitza hobea eduki nezakeela, momentuan pentsatu ez arren. Baina horrek bost axola dit. Orain zoriontsu naiz, Haritz, Itsaso eta Pe-

pitarekin. Zoratuta nagoenetik inoiz baino alaiago bizi naiz. Ezta, Itsaso?

Atsoz betetako platoa, kolorez blai. Musika erakargarria. Aurkezleak dio: "Espero dut jada erantzuna izatea... Iragarki batzuen ostean kontatuko dugu esan beharreko guztia". Perfume bat saltzen duen iragarkia. Edari bat iragartzen duena, eskola jazarpena salatzen duena eta hortz eskuil super magnifiko bat iragartzen duena. Komuneko paperak babesten du saioa. Ikuskizunetako musika. Aurkezle irribarretsua: "Erantzun zuzena esan aurretik bost egoerak gogoratuko ditugu...". (handik 2 minutu eta 24 segundora). "Guztiak dira..."

Saioa moztu da, arazo teknikoak direla-eta.

Zein urrun dagoen Europa

Beñat Albizbeaskoetxea Sánchez
Gernika BHI
Gernika-Lumo

2015eko irailaren 6a; Shamer, Siria

Zerua argi zegoen, lasai, udako arratsalde bero hartan. Ia lurrean gertatzen zenaren kontrakoa balitz bezala. Khaled Asri lehen leiho bat zegoen tokira hurbildu zen, eta kalera begiratu zuen. Soldaduak ikusi zituen, ilara luzeetan mar-txan tankeen eta auto blindatuen atzetik. Aleporantz zihoa-zen, Estatu Islamikoarengandik ihesi. Eia hurbiltzen ari zen, eta Siriar Armadak ezin zuen hainbeste etsairen kontra bo-rrokatu. “Aste bitan, Alepora helduko dira”, entzuten zen kale eta etxeetan. Khaledek gauza bera uste zuen.

Herrialde hura hondoratzen ari zen, eta alde egin beharko zuten berehala.

Jada lau urte ziren gerraren hasieratik, eta bakearen oroi-tzapena gero eta urrunagoa zen. Khaleden alabak, Azharrek, ez zuen bakea bizi ere izan, hiru urte besterik ez baitzituen. Bere semeak, Abdulek, eskola utzi behar izan zuen gerra hasi zenean, eta bere lagun gehienak ihes eginda zeuden, beste milioika siriarrekin batera. “Gerra infernua da”, pen-tsatu zuen lazki.

Orduan, eguzkia desagertzen hasia zela, zarata indar-tsuak entzun ziren zeruan. Soldaduen kapitaina ematen zue-

nak zenbait garrasi egin zituen, eta soldaduak gelditu egin ziren. Khaledek bazekien nondik zetozen zaratak, baina ez zuen sinetsi nahi.

Zeruan puntu beltz batzuk ikusteak egiaztatu zituen bere usteak.

–Drone amerikarrak! –Garrasi egin zuen leihotik, lehen leherketak urrunean entzutearekin batera. Soldaduek ilarak apurtu eta atarietan sartu ziren, eraso posizioan. Khaled leihotik aldendu eta etxe barruan garrasi egin zuen –Abdul! Azhar! Kaamla!

Goazen satora! Orain!

Bi seme-alabak eta emaztea bat-batean esnatu ziren lo-kuluxkatik, eta eskaileretatik jaitsi ziren arin batean. Gelaxka barruan egon ziren, lurrean besarkatuta, ordu bat, bi, hiru, lau... Khaledek ezingo luke erantzun zuzen bat eman.

Azkenean, leherketak amaitu ziren, eta isiltasunak herria mendea hartu zuen. Hautsez estalita, laurak ezkutalekutik irten ziren. Zerua ilun zegoen, eta ez zegoen ilargirik. Kaleetan, soldaduek haien kideen eta zibilen gorpuak ateratzen zituzten hondakinen artetik. Etxe asko guztiz suntsituta zeuden, eta odola zegoen lurrean. Khaledek Azhar eta Abdul begiak estali zizkien, baina jada betirako markatuta zeuden.

Momentu hartan, maila altukoa zirudien soldadu bat hurbildu zitzaien.

–Bizirik daude zibilak, eskerrak Jainkoari. Negoziazioek arrakasta izan dute, eta hirurogeita hamabi orduko su-etena

onartu da. Autobus bat dago geltokian, Gaziantepgo hirirantz irtengo dena, zibilen ebakuazio gisa. Mugi zaitezte!

–Eskerrik asko, jauna –Erantzun zuen Khaledek erdi negarrez– Goazen, maiteak!

2015eko irailaren 7a; Kilis, Turkia eta Siria arteko muga

Hurrengo eguneko iluntzean, Khaledek muga ikusi zuen: errepidea erdibitzen zuen eraikin xume bat. Errepidearen alboetan, lau soldadu turkiar eta kasko urdin bat zeuden, arma automatikoak eskuetan zituztela. Turkiar batek besoa altxatu zuen, lehen autobusari gelditzeko esanez. Gidaria miatu ondoren, bidaiariei autobusetik irteteko esan zieten, eta banaka-banaka arakatzen joan ziren.

Khaled pozik zegoen. Azkenean, bakea metro gutxi bazueta zegoen. Bere aurrean, langa horien atzean, bizitza berri baten aukera zegoen. Bazekien, noski, ez zela batere erraza izango, eta asko borrokatu beharko zuela, baina aukera hor zegoen; ia eskuaz uki zezakeen.

Azharek eta Kaamlak miaketa igarotzean, Khaled konaturatu zen Abdul ez zegoela haiekin. Autobusean banatuta bidaiatu zuten, ez zuen bidaia osoan ikusi, baina ordura arte amarekin zegoela uste izan zuen. Larritu egin zen, eta ingurura begiratu zuen, lerrotik atera gabe.

Lasaitasun handia izan zen Abdul lerroan ikustea, zenbait metro atzerago. Khaledek eskuaz agurtu zuen, eta Abdulek agurra itzuli.

Azkenean, Khaled ilararen amaierara heldu zen. Miaketaren ondoren, bere emaztea eta alaba besarkatu zituen, eta

bidearen albo batean gelditu ziren, Abdulen zain. Gizon bakarra falta zen umearen txanda izateko.

–Altxa besoak eta banatu hankak –Esan zion soldaduak gizonari.

–Ez –Erantzun zuen gizonak, eta momentu batez, dena gelditu egin zen. Ondoren gertatu zenak argazkien lerro bat zirudien. Terrorista poltsikotik labana ateratzen, laban hura soldaduairen bihotzean, turkiarra gar-gar egiten ahotik odola zeriola, eta ondoren lurrera erortzen, hilik.

–Ezin duzue Kalifatza Islamiarretik ihes egin! Gora Abu Bakr al-Baghdadi Kalifa! –Beste poltsikotik detonagailu bat atera zuen– ALLAHU AKBAR!

Beste soldaduek erreakzionatu baino lehen, detonagailua sakatu zuen. Terroristak eta autobusak zituzten lehergailuek eztanda egin zuten, Khaled, Azhar eta Kaamla atzerantz botaz.

–EZ! ABDUL! –Khaledek garrasi egin zuen, negar batean.

Ez zegoen ezer egiterik. Sua, gorpuak eta hondakinak nahastu egin ziren, infernua bera gaindi zezakeen irudia eratuz. Bizirik geratu zen soldadu bakarrak telefono bat atera zuen, eta histeriko hitz egin zuen, laguntza eskatuz.

Khaled momentu batzuk atzera bere semea izan zen gorpu errera hurbildu eta haren alboan belaunikatu zen. Abdul besarkatu zuen, garrasika. Berriz lurrean uztean, semeak zeraman urrezko lepokoa hartu eta otoi egin zuen. Kaamla ere hurbildu zen otoi egitera, atzean Azhar zuela, ezer ere ulertu gabe.

Gaua heldu zenean hirurak altxatu eta muga gurutzatu zuten. Ez zuten non lo egin, ez zer jan. Haien helmuga zen gauza ziur bakarra: Europa.

2016ko martxoaren 18a; Kara Tepe kanpamendua, Lesbos, Grezia

Khaled ilara egiten zegoen, eguneko janaria hartzeko. Aurrean eta atzean, dozenaka errefuxiatu gehiago.

Jada bederatzi hilabete ziren Shamerretik ihes egin zutenetik. Denbora horretan, Turkiatik oinez ibili ziren aurrera eta atzera, dirurik gabe, Lesbosko uhartera mafia batek saldutako txalupa batean heldu ziren arte, beste berrogeita hamar errefuxiatuekin batera. Bertan ezagutu zuten benetakoa miseria. Milaka errefuxiatu, inprobisatutako dendetan lotan. Ia medikurik edo zerbitzurik gabe.

Egun batzuk lehenago arte, etorkizuna ikatza baino ilunago ikusten zuen. Khaledek Grezia gurutzatzeko baimena lortu zuen, baina ez zeukan ferryko tiketa ordaintzeko dirurik. Hori Nazio Batuetako langileek eskaintza berezi bat egin zutenean aldatu zen: Ingeles maila ona zuten errefuxiatuek itzultzaile lana egin ordez, Atenaserako ferrya ordainduko zieten. Khaledek bitan pentsatu gabe onartu zuen.

Khaled berriz orainaldira itzuli zen, eta eguneko janari bakarra hartu zuen, bera eta bere familiarentzat: Arroz eta barazki errazioa. Kanpamenduko kalezulo zikinak igaro zituen, bere dendara heldu zen arte. Barruan, Kaamla koltxoian zegoen etzanda, eztulka, eta Azhar alboan zuen, belauniko.

–Maiteak, janaria ekarri dut. –Esan zuen Khaledek eztiki.

Plastikozko sardexka zahar batekin, pasta hartu eta ahora sartu zion emazte gaixoari.

–Lasai, Kaamla, nire azukre koxkorra. Egun batzuk barru ferrya hartu ahalko dugu, eta ospitale batean osatuko zara. Zin egiten dizut. –Hura zin bat baino gehiago erruki eskari bat zen, etsipenaren etsipenaz.

Orduan, soinu elektroniko bat entzun zen kanpamendu osoan. Khaled dendatik irten zen, zer gertatzen ari zen galdetuz. Orduan, megafonoak piztu ziren, eta gizon baten ahotsa entzun zen, arabieraz.

–Europar Kontseiluaren eta Greziar Gobernuaren eskutik, mezu garrantzitsu bat helarazi behar dut. Momentu honetatik aurrera, asiloa eskatzen duten guztiak Turkiara bueltatuak izango dira, bertan berriz asiloa eskatu eta inmigrazio-prozesua berriz hasteko. Eskerrik asko.

Honela erori zitzaion gainera zerua Khaledi. Momentu batean, bere azken itxaropena desagertu egin zen, kea besterik ez balitz bezala. Haren inguruan, milaka errefuxiatu kexatzen hasi ziren, gero eta bolumen altuagoan. Funtsez, Europako atea haien muturretan itxi zituzten.

Kaamla bi egun geroago hil zen, gaixotasunak zimelduta. Azhar bakarrik geratzen zitzaion Khaledi. Nola edo hala, Europara iritsi beharra zuen. Nola edo hala.

2016ko Gabon Zahar eguna; Egeo Itsasoa, Grezia

Gaua belusezko errezel lodi bat gisa erori zen Egeo Itsasoaren gainean. Khaledek alaba besarkatu zuen, eta

itsasontziaren ertzaren kontra jarri ziren. Hura zen haien aukera bakarra: gau hartan Greziara heldu edo saiakeran ito egingo zen.

Lesbosen gertatutakoaren ondorego hilabeteetan, Khaledek lan besterik ez zuen egin, GKE eta Nazio Batuetako langileei laguntzen. Milaka familia ikusi zituen uhartera heltzen, haien aurrean ateak itxita aurkitzeko. Itoak ikusi zituen, hondartzetan itsasoaren ertzean etzanda, panpinak gisa. Itsasoak bereak gisa erreklamaturakoen oskolak ziren.

Salbatzeko aukerarik gabe hilak, etsipenaren eta gerraren arteko uretan itoak. Askok umeak besterik ez ziren.

Hainbeste hilabetez lan egin ondoren, beste lauogeita hamar errefuxiaturekin batera arrantzaleen itsasontzi batean bidaiatzeko beste diru lortu zuen. Egun hartan bertan, eguerdi inguruan, itsasontzira igo ziren.

Eta han zeuden, Egeo itsasoan nonbait, abenduaren 31n. Zerua guztiz lainotuta zegoen, ez ziren ez izarrak ez ilargia ikusten. Ordu gutxi batzuk barru, Jainkoak hala nahi balu, Grezian lurra ukituko zuten. Azkenean, urtebete baino gehiagoko bidai bere lehen helmugara helduko zen.

Baina hori onegia zen egia izateko.

Urrunean, lehen trumoiak heldu ziren, eta euria hasi zuen. Hasieran, zirimirik bat besterik ez zen, baina gero eta lodiagoa egin zen, zaparrada bihurtu arte. Inor ez zen tapatu.

Aurrean, kilometro batzuetara, itsasargi baten dirdira ikusi zen; ahul-ahula zen, baina han zegoen, eta horrek poztasun deiadar ugari eragin zituen itsasontzian.

Orduan, trumoiak eta tximistek itsasontzia inguratu zuten. Olatuak gero eta altuagoak ziren, eta ontzia era arriskutsuan kulunkatzen zuten. Khaledek Azhar estu besarkatu zuen, lasai zedin. Azkenean, olatu erraldoi batek itsasontzia alboz jo zuen, eta honek bira egin zuen, bidaiari guztiak Egeoko ur hotzen eskuetan utziz. Zorionez, Khaledek igeri egiten bazekien, baina hotza ezin izango zuen luze jasan.

Euriaren artean, argi bat agertu zen. Itsasargia... ez, ez zen hori. Itsasontzi handi bat zen. Khaleden itxaropena berriz piztu zen, hainbeste denbora itzalita egon ondoren.

–Volontaritato Italiano! Siamo qui per aiutare! Stai per caricare tutto! Prendi questi salvavita! –Garrasi egin zuen norbaitek itsasontzitik.

Khaledek ez zuen ulertu, baina ez zen beharrezkoa. Itsasontzi handitik flotagailuak eta salbamendu-ontziak bota zituzten. Errefuxiatu guztiak ontzi handira hurbildu ziren, flotatzen saiatzen, eta hildakoak atzean utziz. Khaled, azken indarrak errez, ontzi batera igo zen, bere alaba eskuetan zuela, eta han konortea galdu zuen.

Gogoratzen zuen hurrengo hondartza bat zen. Goizaldeko lehen eguzki-izpiak harean islatzen ziren, bere inguruan. Ia ametsa zen. “Grezia”, pentsatu zuen. Ohatila batera igo zuten, eta berriz galdu zuen konortea.

2018ko urtarrilaren 12a; Europar Parlamentua, Brusela, Belgika

Khaledek janzkia leundu eta gorbata ondo jarri zuen, eta hizlariak, Europar Alderdi Berdeko ordezkari batek, gonbi-

dapena eman zion. Khaled txaloen artean altxatu eta tribuna-
nara igo zen.

–Egun on, diputatuak, eta egun on, Europa.

«Ziur nago zuetako gehienek irakurrita duzuela Alessandra Rizzoren artikulua; bai, orain urtebete argitaratu zen hura. Bai, nire bidaiari adierazten duen eta hainbeste protesta eragin zituen artikulua. Existituko ez balu bezala egin zenu-
ten hori.

Ba, azkenean, “arazoa” zuen etxera heldu da. Eta “arazo”
honek etorkizun baten bila Europara jo duten milioika erre-
fuxiatuen ahotsarekin hitz egingo du.

Krisi honek Europaren benetako aurpegia argitara ekarri
zuen, duela bi urteko paktua sinatu zenean. Europaren, etor-
kizunaren ateak milaka pertsonaren muturretan itxi zenituz-
tenean. Ez al da Europar Batasuna askatasunaren, berdinta-
sunaren eta bakearen defendatzaile sutuena? Ez al da
Europar Batasuna “ideal altuenetan” oinarritu zena? Ez, hori
jada ez da Europako benetako izaera. Milaka pertsona atee-
tan hil dira, infernutik ihesi, beste infernu bat aurkitzeko.
Umeak, emakumeak, gizonak... itsasoak irentsita, mafien
aberastasunerako. Orain arte ez ikusiarena egin duzue, baina
hori amaitu da.

Nire semea, Abdul, hamahiru urtekoa, atentatu batean
hil zen Siriatik ihes egitean, beste berrogeita hamasei erre-
fuxiaturekin batera. Nire emaztea, Kaamla, Lesbosen hil
zen gaixorik, beharrezkoa zuen sendagairik gabe, bizitzeko
aukera bakarraren ateak bat-batean itxita paktuaren ondo-
rioz. Eta nire alaba Azhar, bost urtekoa, ia nirekin batera ito

zen Greziara heltzen saiatzen ari ginela. Beste milaka istorio ezezagunen errealitateko batzuk dira hauek.

Eta zein da Europak egiten dituen justifikazioak halako krimenen aurrean? “Terroristak dira”, “Europa islamiar bihurtuko dute”, “lanak kentzen dizkigute”, “gure identitatea apurtuko dute”... Honela, eskuin-muturreko alderdiak berpiztu dira, eta orain dela hirurogeita hamabost urte gertatu zena ahaztu dutela ematen du. Esnatu behingoz! GU gara terrorismoak gehien kaltetuak. GU gara gerretatik ihes egiten dugunak, eta GU gara bizitza hobe baten ateetan hiltzen garenak. GU gara gerraren ondorioz kale gorrian geratutakoak. GU gara mugako guardiek jipoituak eta GU gara gosez hilak.

GU ere pertsonak gara, zuek bezala; eta zuek bezalako gauzak nahi ditugu: bakea eta mahaian ogia. Hitz egiten ari naizen honetan, norbait ari da kontinente honetara heltzen saiatzen, eta gaur norbait hilko da saiakeran. Ez du axola gizon, emakume edo ume den; zuek bezalako pertsona bat hil egingo da, Europako herriek eta buruzagiek, orokorrean, beste alde batera begiratu duzuelako denbora gehiegiz.

Baina hau alda daiteke. Egin dezagun lan batera, ideologia eta pentsamolde guztien gainetik, krisi honi amaiera emateko. Egin dezagun lan eskolarik gabe geratu diren milioika umeentzat eta gaixo daudenentzat. Egin dezagun Europaren ateetan hiltzen diren guztientzat, eta gorrotoa jasan duten guztientzat. Egin dezagun Europarentzat».

Txaloak entzun ziren, eta Khaleden aurpegian irribarre bat agertu zen. Bere bidaia, azkenean, amaitua zegoen.

Txomin

Jone Urbieta Lejardi
Markina BHI
Markina-Xemein

Gogoratzen naiz, masailak gorri eta ilea kizkur, aireportura iritsi nintzenekoaz. Zutik zeuden, nire zain, ama eta Txomin. Hamabost urte bete berri, ile marroia, labur samarra, begi berdeak, eskuak poltsikoetan sartuta eta asperdura-aurpegia izatetik hunkidura-aurpegia izatera pasa zen instant batean. Amak, berriz, ezin izan zion negarrari eutsi, nigana hurbildu eta besarkatu egin ninduen. Banilla usaina, inoiz ezagutu izan dudan emakume goxoena. Muxu eman zidan bekokian eta nigandik urrundu zen. Orduan, Txomin, poliki makurtu zen. Belarri batetik besterako irribarrea ezkutatu gabe bi besoekin inguratu eta estutu ninduen, bere babesa lehen aldiz eskainiz.

Goizeko zazpiak pasatxoan etorri da autobusa, logura izan da nire gorputzaren jabe autobus hartara igo eta erosotasuna aurkitu dudanean. Jakin dut ordu asko dauzkadala aurretik eta entzungailuak jarri ditut, musikari “play” eman eta begiak itxi.

Nire zortzigarren urtebetetzeaz gogoratzen naizen bakoi-tzean, irribarrea margotzen dit pozak aurpegian. Txominek kotxean buelta bat ematera eraman ninduen, auto zaharra zen, kolorea ia guztiz galduta, baina bazuen zerbait berezi egiten zuena. Biok kotxean sartu ginen, aurreko eserlekuan eseri nintzen gerrikoak aurpegia urratzen zidan arren. Musika ozen jarri zuen Txominek, eta abiadura bizian egin genuen ibilbide

guztia. Konturatu orduko Larrungo magalean geunden. Trena hartu genuen igotzeko, egurrezkoa, iluna, hezetasun usaina zen nagusi. Txominek begiak estali zizkidan eta bizkarrean hartu ninduen. “Prest, Kattalin?” Baiezko zalantzati batez erantzun nion. Zapia kentzeaz bat ireki nituen begiak. Inoiz ez nuen halakorik ikusi. Itsaso mugagabea ikus nezakeen nire begiekin, eta itsasertzak, eta Berako herria. Zoragarria izan zen, inoiz inork egin didan oparirik ederrena.

Begiak ireki ditut, bai, loalditxoa egin dut baina zortzi t'erdia besterik ez dira izan oraindik. Amaren irudia etorri zait bat-batean, izara zurien artean, sueroa zainetara jariatzen, borroka bizian, maitasunezko itsaso lasai bat gorputz barruan duela. Osabak eman dizkidan txikleetako bat hartu dut, zorabiatzen hasia egon naiz eta.

Ostegun iluntzetan, igerilekutik ia indarrrik gabe itzultzten nintzen, oraindik lanak egiteke izaten nituen. Orduan ere, Txomin nire ondoan esertzen zen, hainbeste gorroto nituen matematikako etxeko lan amaigabeak egiten laguntzen, amak afaritarako deitu arte.

Bederatziak, osabak mezua bidali dit. “Nola doa bidaia? Amak deitu dit, askoz ere hobeto dago, kimioterapia ondo joan da eta beharbada beste batekin nahiko izango da”. “Pozten naiz, bidaia astun samarra da, baina lo ere egin dut. Iristean idatziko dizut, muxu”.

Gauetan lagunekin atera eta biharamun goizera arte itzultzten ez zenean, elkarrekin gosaltzen genuen. Txominek munduko kolakaorik ederrenak prestatzen zizkidan, bits eta guzti. Orduan, ama azaltzen zen sukaldean, bata urdina jantzita, bioi egun onak ematera. Izugarri gustatzen zitzaizkidan goiz haiek, eguzki izpiak leihoetatik sartzen ziren, eta ez zen argia piztu beharrik egoten. Gero, Txomin lotara

joaten zen eta aspertu egiten nintzen. Bazkalordua iristen zenean, isilka sartzen nintzen bere logelan eta gainera salto egiten nion esnatzeko.

Begiak ireki ditut berriz ere, amorrua sentitu dut, indarrez askatzeko beharra, begiak eta eskuak gogor estutu ditut, amorrua indarrez askatu. Ahuldu egin naiz, indar guztia galdu dut. Musikaren bolumena igo dut, nire baitan pentsatzen dudana ez entzuteko, inpotenziari aurre egiteko, indarrak berreskuratu eta aurrera jarraitzeko.

Iaz, amari bularreko minbizia diagnostikatu zioten, ama gogorra da eta ingurukoon maitasunak hari aurre egiten laguntzen dio. Hasieran, ez zuen aldaketa handirik eragin amaren gaixotasunak nire egunerokotasunean. Duela hiru hilabete defentsek huts egin zioten eta ospitalean ingresatu zuten. Ordutik, osaba Pakorekin gozaten ditut egunak eta ama iluntzetan bisitatzen dut.

Hamarrak. Ezin izan diot negarrari eutsi, bolumena gehiago igo dut eta begiak itxi ditut, arnasa sakon hartu eta bota. Neure buruari kalte besterik ez diot egiten. Leihotik begiratu eta Xabaten besarkada baten beharra sentitu dut.

Xabatek eta biok elkar ezagutu genuenean, inork ez zukeen esango elkarrentzako hain garrantzitsu bilakatuko ginenik. Xabat herrikoa da, beti izan dut haren berri, baina duela bi urte inguru ezagutu nuen bere barnea. Sekula ez dut ahaztuko gure lehen muxua. Herriko jaietan elkarrekin topo egin genuen eta biok genekien gertatzear zegoela. Bide zabal batean aurrera egin genuen eta azken argia pasatu genuenean, oinez egiteari utzi genion. Elkarri begiratu eta poliki-poliki eskuak sorbaldetan jarri nizkion, berak, gerritik heldu zidan eta bere gorputzera hurbildu. Sabeleko tximeletak sentitu nituen, pentsamenduak zuri. Aurpegiak hurbildu

eta begiak itxi nituen, ezpainen elkar ukitze soilarekin, sabalaldeko kili-kilia gorputz osora zabaldu zitzaidan. Muturak bustita, elkarrengandik urrundu ginen.

Leihotik begira igaro ditut gainerako minutu gehienak, Xabati deitu diot, itzalita. Txomin gogoratu dut, haren besoen babesa, eta falta, faltan botatzen dut. Emakume bat eseri da nire ondoan, begi zuloak lehortu ditut, konfiantzazko keinu bat egin dit. Hirurogei bat urte inguru izango zituen, ile marroi laburra, ongi zaindua eta alkandora zuri bat.

Duela pare bat urte, emakume bat ezagutu nuen, Donostiako Kafe Antzokian. Bizitzaz asko dakien emakume horrietako bat zen, jakintsua eta bizipen ugari izandakoa. Zerbitzariek ez zuten galdetu beharrik izaten haren mahaira kafesne doblea eta kremadun opiltxoak eramateko. Inguruan jartzen zuen giro lasaiak eta bere istorioen xarmak arratsaldeak berezi egiten zituen. Larunbatero joaten nintzen, haren ondoan eseri eta zioen guztia adi entzun eta bere maitasuna jasotzera. Baina apurka-apurka, gutxiagotan joaten hasi zen eta gehiago kostatzen zitzaion hitz egitea, egun batez joateari utzi zion arte. Ez nuen haren izenik inoiz jakin eta ez nuen gehiago haren berririk izan, baina beti maitatu eta gogoratuko dut erakutsi zidan guztia.

Nire bidaiaz galdetu dit gazteleraz. Bisita bat egitera noala esan diot, hurbileko norbait bisitatzerara noala eta ordu erdi besterik ez zaidala falta. Orduan konturatu naiz hamabiak direla eta denbora gutxiren buruan iritsiko naizela. Frantziako muga igarota izan dugu jada. Aurretik ere izan nintzen Frantzian, baina oportretan. Oraingo hau desberdina da, ez naiz oportretara joatean bezain pozik egon, baina aldi berean bai.

Hamar urte nituenean, Txomin, ama eta hirurok Disneyland-era joan ginen oportretan hegazkinez, eta igerileku eta

guztiko hotel batean egon ginen. Abuztuko asterik beroena zen eta eguzkiak sorbaldak erretzen zituen. Zapore guztietako izozkiak dastatu genituen eta eguzkia ezkututzen ikusi genuen hondartzatik hainbat alditan. Mickey Mouse ezagutu nuen, orduan ikaragarritzko ilusioa egiten zidan, eta Plutorekin argazkia atera nuen. Eskolako lehen aste osoa pasatu nuen Frantziako kontuak guztiei kontatzen.

Autobusa gelditu egin da, badirudi helmugara iritsi garela. Musika kendu dut, osabari mezua bidali eta motxila bizkarrean hartu. Pare bat etxe pasatu eta ezkerretara jo dut, kartel handi bat ikusi eta, irakurri ahal izan arte, aurrera egin, POITIERS VIVONNE. Eraikin handi bat izan da, tximinia askokoa. Hurbildu naizenean, bertan ikusi dut, tente, Txomin, burdinazko barren beste aldean. Korrika hasi naiz eta barrak tartean direla besar-katu dut malkotan blai.

Lokarriak

Naia Badiola Solabarrieta
Ondarroa BHI
Ondarroa

1 Eli

Bum. Ateak.

Presaka noa berriz institutura. Eskaileretan behera korrika, eskuineko zapatako lokarria lotu ez eta ondorioz kolpe ederra hartu du nire aurpegiak lurraren kontra, amari jaramonik egin ez eta ondorioz lurrean amaitu dut. Jarraian esku bat. “Kaixo laguntzerik behar al duzu?” galdera bat. Burua jaso dut, eta sekula aurretik ikusi ez dudan mutil bat ikusi. “Ez, ez da beharrezkoa” esan eta eskuekin lurrean indar eginez altxatu naiz. Norbait zetorren eskaileretatik behera, pausoak entzuten ziren. Mutilak “agur” esan eta portaletik atera da.

Bere pausoak jarraitu ditut. Kanpora atera naiz. Eta han ikusi dut berriro ere mutil ezezaguna, eskuak patrikan sartuta dituela. Aurpegi borobila, begi ilun sarkorrak, bere begiradan galdua geratu naiz. “Egun guztia hor begira geratu behar duzu ala?” esan dit irribarretsu. Bere eskua eskaini dit, nahiz eta ezagutu ez mutil hark bazeukan zerbait ezaguna, eta eskutik heldu diot.

2 Marta

Bum. Ateak.

Presaka doa Eli berriz ere institutura, alaba hau... ezin dut berarekin. Orain dela 8 hilabetetik arraro samar dabil, haurdun nagoela jakin zuenetik alegia. Bera bakarrik hizketan ikusi izan dut logelan, nerabeen kontuak izango dira. Te katilua bero dago, eta mahai gainean uztera altxatu naiz sofatik. Eskuek dar-dar egin didate eta katilua lurrera erori da. Te beroaren zipriztinak sentitu ditut nire hanka biluzietan, kristalen bat edo beste ere bai, nire azala arrakalatzeko. Nire barnean nola zurrunbilo bat sortzen zen sentitu dut, eta bat-batean zurrunbilo hori desegin egin da eta honen indarrak bultzatutako ura nire barnetik atera da. Urak bota ditut. Badator haurra.

Segituan telefonoa hartu eta 112 teklak markatu ditu.

3 Eli

Plazarantz egin dugu oinez eskutik helduta, hitz bakar bat ere ez diogu elkarri egin bidean. Mutil hura ezagutu ez arren niretzat ezaguna duen zerbait dauka begietan. Eta irribarrea berriz, huraxe bai irribarrea berari begira lelotuta gelditu naiz eta.

Txikitatik irakatsi dit amak ezezagunekin hitzik ez egi-ten eta are gutxiago eskutik heldu eta buelta bat ematera joaten. Baina ez dakit zer pentsatu. Badauka zerbait arraroa, misteriotsua baina aldi berean ezaguna; oraindik ez dakit seguru zerbait ona ala txarra den. Beno, zer da ona edo zer da txarra? Hori beste kontu bat da. Bakoitzak bere ikuspegia du, bere pentsamenduak ditu; zeinek esan behar dizu zuk sinesten duzuna egia den ala ez?

Eta orduan tupustean gelditu naiz, nire bikoteak gure esku izerdituei eusten jarraitu nahi ez duela pentsatu baitu. Eta biok bata besteari begira geratu gara; gure oinak zementutan harrapatuta egongo balira bezain geldi, eta une hartan tx antzeman dut nire bihotza gorputzaren atal txikienetara raino odola amorruez, suminez ponpatzen.

4 Marta

Bizkor etorri da anbulantzia etxe azpira. Leiho ondoko aulkian eserita nago medikuen zain. Instant horretan nire bizitza nola aldatuko den pentsatzen. Dena desberdina izango da une horretatik aurrera. Ume bat ez eta bi izango ditut. Nola aterako dut ba neure burua korapilo horretatik? Emakume alargun bat bi ume zaintzen?

Alargun, bai bakarrik. Nire gizona hil ostean bakarrik geratu nintzen etxe huts hartan. Nire gizona... hura nire bizipoza. Bakarrik utzi gintuen neumonia harrapatuta. Eta orain inoiz baino gehiago bere falta sumatzen du. Beti sumatu izan dut, Asier galdu genuenetik halako tristura bat barnean. Baina tristura hori ez da joan. Handitzen joan da, gorputzean zehar zabaldu, hedatu, barreiatu da.

Atea jo dute, altxatu eta poliki-poliki hurbildu naiz, ez nuen nahi haurra nire barrutik ateratzerik. Atea ireki bezain pronto, sartu dira hiruzpalau mediku kamila handi batekin eta astiro-astiro kamilan etzan naiz, mediku batek gerrikoa jarri dit (eroriko naizela pentsatu dute), eta eskuekin oldartsu heldu diet kamilako alde bakoitzean zeuden burdinazko barrei, begiak gogor itxiz, hau ahal bezain laster bukatuko den esperantzaz.

5 Eli

–Eser gaitezen hor aurreko bankuan –esan dit mutilak.

–Bai –esan diot eta esertzera nindoala albotik pasatu zaidan andreak aurpegi arraroz begiratu didala konturatu naiz, baina ez diot kasu handirik egin. Bankua errepidearen aurrean zegoen, busti-busti eginda, atzo euria egin baitzuen goitik behera. Amona Nekanek oparitutako jertsea kendu eta bankuan ipini dut ipurdia busti ez dakidan. Bitartean mutikoak arraro begiratzen dit.

–Zer duzu? –galdetu diot ez bainekien zeri begiratzen zion hain arraro.

–Ezer ez, Eli, ezer ez –erantzun dit, irribarre batez.

Azkenik, bankuan eseri eta hotzikara batek mugiarazi dit gorputza. “Eli? Noiz esan diot ba nire izena?” pentsatu dut eta jarraian berak erantzun –Lehen laguntza eskaini dizudanean esan didazulako dakit –erantzun berak.

–Orain pentsamenduak ere irakurtzen al dituzu? –galdetu diot harriturik.

–Ez, neska, ez, ahoz goran hizketan zabilta! –esan eta barrez hasi da. Niri neuri ez dit batere graziarik egin. Baina eskutik heldu dit eta haserre guztia haize bolada batek nola nigandik urrun eramaten duen sentitu dut. Pozik nago, bere ondoan aske sentitzen naiz.

Sirena hotsa entzun dut urrunean. –Istripuren bat gertatuko zen –pentsatu dut.

–Bai, neuk ere halaxe uste dut –esan dit telepata mutilak.

6 Marta

Anbulantziaren sirena hotsa.

Garraxika.

Ahulduta.

Ezin gehiago.

Su hartu beharrean nituen begiak, malkoz bustiz lasaitu ezinean. Nahasmena zen nagusi nire buruan. Indar egiten nuen bakoitzean amildegi batetik behera jausten egongo banintz bezala eusten nion eskuari, nire biziari eusten zion haria balitz bezala. Ahots kordak apurtzeko neuzkan, garrasien gogortasunaz, barnean geratzen zitzaizkidan indar guztiakin egiten nuen garrasi; mundua bihar amaituko balitz gisa.

Nire barnean dena txikitzen zegoela sentitzen nuen, hezur bakoitza; ehun bakoitza zakarki puskatzen, eta apurtzean oinaze azkengabe bat askatuz min egiten. Odol ugari ikusten nuen inguruan, nire min guztien emari.

Ezin nuen gehiago, banekien indar egin gabe geratzen banintzen nire barnean zegoen haurra ez zela bizirik aterako, baina ezin nuen jarraitu, nire gorputza indarrrik gabe geratzen hasi zen; ahul sentitzen nintzen eta zorabiatu egin nintzen.

Aldiune hartan ez nintzen gertatzen ari zenaz konturatzten, bizia sortzen nengoen, nire barnetik haurtxo bat jaioko zen laster, eta ez nekien nola heldu nintzen egoera hartara; nire burua nire oroitzapenetan zehar murgildu zen nahasmen hartatik urrun lasaialdi bila.

Lanean hasi nintzen lehenengo egunera bueltatu nintzen, Gurutzetako ospitalera hain zuzen ere, medikua bainaz, pediatria. Galduta ibili nintzen, korridore amaigabean zehar, eta tupustean gelditu nintzen mediku bat haurtxoa bere gurasoei ematen ikusi nuenean, seguraski erditu eta gero.

Emakumeak haurtxoa eskuetan hartu zuen goxo-goxo, bere besoek babesten zutela. Haurraren aita berriz, amaren alboan zegoen malkoak masailetatik irristatzen zitzaizkion bitartean pozaren pozez. Orduantxe hartu nuen ama izateko erabakia, nik ere nire poz, tristura eta bizitzaren gorabeheri aurre egiten irakatsi nahi nion haurtxo bati, nire haurtxoari.

Ingurua aldatzen hasi zen, haur bat bilakatu nintzen amaren besoetan babesturik, gaitz guztietatik babesten ninduten besoak ziren amarenak, epeltasuna, segurtasuna ematen zidatenak. Aita ere hantxe zegoen irribarrez, eta kopetan muxu eman zidan. Aitaren irribarrea urrunduz joan zen bada laster.

Eta lehen aita zegoen lekuan amona agertu zen, munduan gehien maite dudana pertsona.

Gogoratzen naiz nire amona bizirik zegoen egunak izan zirela nire bizitzako alaiak, segurtasuna, poztasuna, maitasuna ematen baitzidaten bere itsasoa eta zerua baino urdinagoak ziren begi urdinen begiradek. Eta bere ezpainek berriz aholku paregabeak ematen zizkidaten, aurrera jarraitzeko segurtasuna emanez.

Gogoratzen naiz bizikletan ibiltzen ikasi nuen egunean, nire lagun guztiek zekitelako bizikletan ibiltzen, baina nik ez, eta abendu hotzeko arratsalde hartan askotan ahalegindu

nintzen baina alferrik. Porrot egin eta gero, etxean sartu nintzen eta amona zegoen han, butakan eserita, puntua egiteko orratz luzeak bere zimurtutako behatz luzeen laguntzaz, trebezia mugituz, eskularru ederrak egiten.

Negarrez hurbildu nintzen berarengana eta amonak, segituan, puntua egiteko orratzak alde batera utzi eta bere izter ahul eta makaletan eseri ninduen, eta bere eskuez nire masaileko malko beroak aurpegitik kendu.

Bere esku zahar zimurtu eta latzez aurpegia laztandu zidan maitasunez, eta bere ezpain finak mugituz “zer gertatzen zaizu negarrez egoteko, laztana?” galdetu zidan. Nik “ezin dut gehiago, amona, etsi egin dut, asko saiatu naiz, eta ahul sentitzen naizelako egiten dut negar” esan nion. Eta berak “negar egiteak ez du ahula zarenik frogatzen, laztana, bizirik zaudela baizik” erantzun zidan.

Ahultasuna alde batera utziz, begiak ireki ditut, errealtatera bueltatu naiz gertatzen ari denari aurre egiteko, amonaren aholkuari jaramon eginez, gorputz guztiarekin bultzatu zaitut kanporantz, bitartean barnean nuen guztia apurtuz, ez nekien bizirik aterako nintzen hartatik, baina zu bizirik atera behar zinela banekien. Zakarki garrasika, intzirik, mundu guztiak entzuteko moduko oihuak eginez, aha-legendu naiz zu nire barnetik ateratzen, nire haurtxo kuttuna. Eta azken ahalegina egin dut, azken bultzada, azken oihua, azken odol isuria.

Orduan negarrak entzun nituen, Zure negarrak, bizitzaren negarra. ONGI ETORRI.

Bum. Zerbaiten kontra jo du anbulantziak.

7 Eli

Errepide aurreko bankuan eserita jarraitzen dugu biok,
elkarri eskutik helduta. Eta mutiko bat hurbildu da guregana
eta Ken Zazpiren Haizea kantua abesten hasi:

*haizea bezala
eskuen artetik
ihes egiten duzu,
eta momentu baten
galduta bakarrik
hustuta uzten nauzu*

*behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan
baina badakit hor zaudela ezkutatuta nire bihotzean
zure irrifarra gogoan ezin ahaztu eta ezin ikutu
zergatik ez zauden nirekin ezin dut jasan, ezin dut ulertu*

*milaka arrazoi
korrika hasi ta
inoiz ez gelditzeko,
itxaropen hitzek
ez dute balio
zu berriz sentitzeko*

*behar dudanetan ezin naiz babestu zure besoetan
baina badakit hor zaudela ezkutatuta nire bihotzean*

*eta agertzen zara
Laboaren kantu zaharretan
eta lapatzako olatu bortitzetan
ez zaitut inola berriz galdu nahi laztana
baina goizeko ilargia bezala
nigandik urruntzen zara*

Mutikoa joan egin da. Eta guk eskutik helduta jarraitzen dugu irmoki, haizeak bezala eskuen artetik ihes egingo didan beldur bainaiz. Sentsazio arraroa dut barnean, gogoz kontra nabil neure buruarekin, errealitatearekin jolastuz, hau nahastuz, eraldatuz, irudimenarekin batuz, nire errealitatea eraikiz.

–Etorri nirekin –esan eta biok batera bankutik altxatu gara eta zuzen oinez hasi, pauso irmoan. Errepidearen erdian geundela, nire lagun berriak “lokarriak” xuxurlatu dit belarrira ahots ezti batez. Horiek lotzera makurtzean errepidearen bestaldeko denda batean kristalean nire islada ikusi dut, ez beste inorena. Sirena hotsa.

Bum. Aitarekin naiz orain.

URRUZUNOTARRAK
1986-2018

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Abaunza Urionabarrenetxea	Sara	Ametsen bila	2013	Prosa
Aboitiz Correa	Xabier	Ikaro	2010	Prosa
Aginaga Etxebarria	Leire	Anbotoko dama	2017	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotoaren mendekua	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Pausoak	2006	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Ikararen korridorean gandi	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Agian	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Hiru segundo eta erdi	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Azkeneko bidaian	2008	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Denbora zer den	2008	Poesia
Agirre Gonzalez	Amaia	Zenbakaitzaren mugagabetasuna	2006	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Gatibu	2007	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Zeruertzaren bila	2008	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Tximeleten jolasa	2008	Poesia
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	Poesia
Agirre Madariaga	Uxue	Oroitzapenen ziega	2010	Prosa
Agirre Mosquera	Uxue	Espero ez nuena	2010	Poesia
Agirre Zapiain	Ugaitz	Malkoz josiriko bandera	2008	Poesia
Agirre Zapiain	Ugaitz	Erokerian	2009	Poesia
Agirregomezkorta Iza	Miren	Mare Mortum	2018	Prosa
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Bitxilore, zu traidore	2016	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Aske	2017	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Irantzu	2018	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Miraz	2018	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	Prosa
Aizpuru Bilbao	Miren	Larunbatak	2016	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Blas	2011	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Ipuin batean bezala	2011	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Hozkada	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Espaloian noraezean	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Zulo beltza	2013	Poesia
Akzu Bidegain	Maialen	Teloia jaisten denean	2013	Poesia
Alberdi Estibaritz	Antton	Ez dut ezer ulertzen	2002	Prosa
Albizbeaskoetxea Sánchez	Beñat	Zein urrun dagoen Europa	2018	Prosa
Aldabaldetrekua Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Morte nel carnevale	2008	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Izango al du udaberririk negu honek?	2009	Prosa
Alonso Allue	Leire	Azken dantza hau	2011	Prosa
Alonso Allue	Leire	Autopsia	2012	Poesia
Alonso Allue	Leire	Alzheimerraren doinua	2012	Prosa
Alonso Allue	Leire	Jainkoaren izenean	2011	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogorutzen haiz	1995	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	Poesia
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Beragatik	2015	Prosa
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Post mortem	2016	Prosa
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Lubiankan	2017	Prosa
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	Poesia
Ansa Arbelaitz	Garazi	Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute	2005	Prosa
